

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2022ko azaroaren 7ko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal (19:40tik goiti), Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatceguy (19:35 arte), Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Peio Etcheleku (19:20tik goiti), Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq, herri kontseilariak.

Hor ez zirenak edo ezin etorriak:

Ahalordeak: Marie Aristizabal-ek Véronique Cadepond-Larronde-ri (19:40 arte), Corinne Othatceguy-k Yolande Huguenard-i (19:35 arte), Peio Etcheleku-k Jean-François Lacosta-ri (19:20 arte).

- Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez Jean-Paul Eyherachar izendatu dute saioko idazkari izateko.

Herri biltzarkideen kopurura.....	29
Presente diren herri biltzarkideak	28
Ahalorde kopurua.....	3
Hor ez direnak.....	5

– Solasgaiak:

69 – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): Energia Partekatuen Zerbitzuan izena ematea (CEP).	6
70 – Argiteria publikoaren itzaltze partziala.....	7
63–Fagalde etxearen eskuratzeko proiektua.	9
64 – Elorria bideko lur sail baten eskuratzeta.	10
65 – Ezker paretaren zaharberritzea: proiektuaren onspena.....	11
66 – Arnagako zalditegien eta laranjategiaren zaharberritzea: proiektuaren onspena.	12
67-A – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): Hartzain auzoko argiteria publikoa berritzeari loturik,« Komunikazio Elektronikoentzako Obra Publikoa, A2021 opzioa».....	14
67-B – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): horma elektrifikazioa – Hartzain auzoko argiteria publikoa eraberritzeko programa.	15
67-C – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): horma elektrifikazioa – Hartzain auzoko programa « Article 8 BT (Bayonne) 2021 ».....	16
68-A - Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): Eskolen karrikako argiteria publikoa berritzeari loturik,« Komunikazio Elektronikoentzako Obra Publikoa, A2022 opzioa».....	17
68-B - Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): horma elektrifikazioa – Eskolen karrikako argiteria publikoa eraberritzeko 2022ko programa, EP (SDEPA).....	18

68-C - Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): horma elektrifikazioa – Eskolen karrikako programa « Article 8 BT (Bayonne) 2022 ».....	19
71 – Euskal Elkargoa: Burgaxiloa pasatzeko eskubide hitzarmena hoditeria berriarentzat.	20
72 – Euskal Elkargoa: Marieneko ur biltegiaren alde lur sail baten itzultzea.....	21
73 – Antolamendu zergaren herriko zatiaren etekina Euskal Elkargoari derrigorrez isurtzea. 21	
74 - AGAZ: Kanboko AGAZera jiten diren Kanbotik kanpoko haurrentzako finantzazio hitzarmena.	23
75– AGAZ: Jantegi elkartearekin hitzarmena Hautzaro Gazteria eta Hezkuntza zerbitzuari apairuen hornitzeko.....	23
76 – Herriko Etxea eta GEUZ-aren artean eskaera talde baten osatzea jatetxe-txartelen hornikuntzarako.	23
77 – Hilobi berrien salmenta prezioaren finkatzea.	24
78 – 2023ko salneurriak.....	25
78-A – Herriko apartamentuen 2023ko prezioak.....	25
78-B – Euskal Bixkotxaren Bestako erakusleen prezioak, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarean izanen direnak.	26
78-C – Herriko Besten karietara eremu publikoaren okupatzeko prezioak, 2023ko urtarrilaren 12etik goiti indarrean izanen direnak.....	27
78-D – Hilerriko prezioak 2023/2024.....	27
78-E – 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarean izanen diren Arnagarako sartze prezioak.	28
78-F – Lorategietarako hitzroden prezioak, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean.	29
78-G – «Liburu Azokaren» prezioak 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean.....	29
78-H – Gela eta materialen alokatzeko prezioak, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean... 29	
78-I – Autokarabana guneko prezioak, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean.....	31
79 – Hartzekoen beztertzea.	32
80 – Euskal Elkargoa: Karga Transferituen Ebaluaketarako Tokiko Komisoraren (CLECT) txostenaren onarpena.....	32
81– Garraio publikoen kudeaketa-egitura publiko baten sortzea.....	34
82 – Langileria: enplegu sortzea.	34
83 – Langileria: enplegu sortzea.	36
83-A – Arduradun enplegu baten sortzea.	36
83-B – Animazio laguntzaile enplegu baten sortzea.....	37
84– Langileria: apendizgo kontratuak.	39
85– Langileria: Lanbideratze Kontratu Bakarra – Enplegu eta Gaitasun Ibilbidea (CUI-PEC).40	

Saioko solasgaiarekin hasi aitzin, Auzapezak Solène Caron anderea aurkeztu du, SOLIHA (Solidarité Habitat) elkarteko Etxebizitza eta lurralde eta garapen proiektuen zerbitziburua.

SOLIHA norbanakoentzako bizitegien hobekuntzan eta lurralde erakundeentzako bizitegi ekintzak eta politikak garatzen berezitua den elkartea da.

Gure lurraldean hutsik egoten diren etxebizitzetako buruz ToLFEPak 2021ean egin inkestaren emaitzak zehazteko asmoz, herriak SOLIHARI eskatu dio inkesta osagarri baten egitea, bereziki ToLFEPen inkestan aipatzen ziren 22 etxebizitzetako buruzkoa, zeinak banakako 19 jabegotan banatuak diren.

Xedea:

- Gaur egun herrian diren etxebizitza hutsen azterketa sakonagoa egitea, jabeen identifikatzea eta hutsik egotearen arrazoiak azaltzea.
- Jabe horiei eskatzea beren etxebizitza hutsak alokairu merkatuan proposa ditzaten akuilatzea, jabe-errentatzaileentzako akuilatze dispositiboak ezarritz.

Auzapezak Solène Caron andereari eman dio hitza.

SOLIHAK Kanbon eginen duen ikerketari buruzko zenbait diapositiba aurkeztu ditu. Oroitarazi ditu testuingurua, adierazi diren beharrak eta urraspidearen etapa nagusiak. Ondotik, Kanbon merkaturatu den ondasun baten adibidea eman du.

1 - Lurraldeko eta herriko testuingurua:

Caron andereak oroitarazi du Euskal Elkargo osoan eta bereziki kostaldean eta kostalde gibelean tentsio biziki handiko testuingurua dugula etxebizitzari dagokionez. Zehaztu du helburua dela herri erdiguneak biziberritzea, Kanboko besteak beste, eta natura, laborantza eta oihan eremuen kontsumoa mugatzea, zero artifizializazio garbi (ZAG / ZAN) helburua segituz.

Kanbo herria (6 622 biztanle, INSEE 2019), kostalde gibeletako herri egituratzailea da eta honako datuak ditu:

- ✓ %71,4 etxebizitza nagusi,
- ✓ %22,4 bigarren etxebizitza,
- ✓ %6,2 etxebizitza huts.

Jabe-errentatzaileen etxe hutsak merkaturatzeko hainbat dispositibo erabil daitezke:

- ✓ "Loc advantage" dispositiboa:
 - Zerga laguntzak, etxe hutsak hitzarmen bidez merkaturatzeko, zaharberritze lanik egin behar gabe,
 - Interes orokorreko zaharberritze lanen Programari datxikon diruztatzea (baldintzapean) ANAH hitzarmen baten truke: zerga laguntzak, Ipar Euskal Herriko SOLIHA-k laguntza teknikoa eta dirulaguntzak eman diezazkieke jabe-errentatzaileei,
- ✓ Errentatzaileentzako "Ma PrimeRenov' bailleur": energiei buruzko laguntza plataforma: Euskal Elkargoak sortua eta SOLIHA-k dinamizatua.

2 - Beharren adierazpena:

Auzapezak erran bezala, helburua da Herriak abiatu duen urraspidearekin segitzea, hots 2021ean ToLFEPak egin inkestarekin segitzea, zeinak bost urte baino gehiago hutsik diren 19 jabego identifikatu dituen. Orotara 22 etxebizitza dira. Urraspidearen helburua da lehentasunez eskura litezkeen ondasunak identifikatzea.

Caron andereak SOLIHAK egin ikerketaren helburuak zehaztu ditu:

- Herri eremuan hutsik diren etxebizitzak ezaugarritzea (ondasun mota, ekipamenduak, eraikuntza kalitatea, eraikuntza data, iraupena, kokapena),
- Jabeen inkesta kualitatiboa egitea, etxebizitzak hutsik izateko arrazoiak eta merkaturatzeko oztopoen ezagutzeko.
- Egoera bakoitzari egokitutako esku hartze estrategia proposatzea: hitzarmena lanak eginik edo lanik gabe, merkatu librean eskaintzea.

3 – Urraspidearen etapa nagusiak:

1. FASEA:

Lanketa kuantitatiboa da, datuak eta landa bisitak uztartuz egiten den analisia. Lan hori bukatzean, txosten bat aurkeztuko da, mapa batekin, eta hutsik egotearen ezaugarriak emanen dituen aitzin analisia batekin.

2. FASEA:

Identifikatu diren ondasunen jabeen identifikatzea eta inkesta kualitatiboa. Fase honetako lanak ere txosten bidez aurkeztuko dira.

3. FASEA:

Honako fasea aitzinatu ahala eramanen den lanketa da, interes orokorreko programaren baitan, jabeekin harremanetan sartuz (telefonoz ala zuzenean), non merkaturatzeko aukera desberdinak aurkeztuko zaizkien, existitzen diren dispositiboak ezagutarazteko, izan zaharberritze lanen diruztatzeako, ondasunarentzat duten proiektuari edo beren profilari hobekien egokitzen diren aterabideen atzemateko.

4. FASEA:

Honakoa merkaturatzeko bidelaguntza operazionala da. Hots, ondasuna merkaturatzea ahalbidetuko duten laguntzen xerka joatea.

Urraspidearen bilana aurkeztuko da datorren urtean zehar.

4 – Kanbon merkaturatu diren ondasunen adibide zenbait:

Caron andereak, Kanbon interes orokorreko programaren baitan alokairuan eman diren ondasun batzuen adibidea amen du. Proiektua hiri erdian da eta alokatzeko sei apartamentu (T2tik T4ra) eskainiko ditu. % 50 hitzarmendunak izanen dira, errenta mugatuarekin, eta lanen diruztatzearen zati bat ANAH eta Euskal Elkargoak beren gain hartuko dute.

Bukatzeko, auzapezak oroitarazi du SOLIHaren eginkizuna herriak hasi urraspidean kokatzen dela eta espero du ToLFEPak seinalatutako egituraz hutsik diren 22 etxebizitzetatik haratago joanen dela. SOLIHA politika horren eramateko laguntzaile izanen da.

Auzapezak Caron anderea eskertu du bere esku hartzeaz.

– Iragan biltzarraren aktaren onarpena.

2022ko uztailaren 11ko saioari buruzko oharrik izan ez denez eta nehorik ez duenez hitza eskatzen, bozkari ekin zaio eta akta aho batez onartua izan da.

Solasgaietan sartu aitzin, Auzapezak Emmanuel Fregonese, udal eraikinen arduradun berriari aukera eman dio bere buru aurkez dezan.

Aurkezpen labur batean, Emmanuel Fregonese jaunak bere ibilbidea aurkeztu du eta Kanboarra izanik plazer handiz arituko dela Kanbo herriaren zerbitzuko.

Auzapezak eskertu eta ongi etorria eman dio.

Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2022ko ekainaren 19tik 2022ko urriaren 15era:
 - 15 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 2
 - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobia): 1

- 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobitxoak): 1
 - 15 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 1
 - 30 urteko kontzesioen eraberritzea (hilobiak): 4
- 2022ko uztailaren 11ko D-2022-017 erabakia: Bideo-babeseko sistema hornitu eta ezartzeko esparru-hitzarmen baitako merkatu baten esleipena SCOPELEC sozietateari, 145 289,92 €ren truke, zergaz kanpo.
 - 2022ko uztailaren 11ko D-2022-018 erabakia: bi tenis zelai estalien eraikitze eta club-house delakoaren eraberritzeko prozedura egokituko merkatuaren 9 atalen esleipena 1 319 975 ,78 €ren truke, zergaz kanpo, 2. atalean tratamendu akustiko batentzako opzioa dagoelarik.
 - 2022ko agorrilaren 10eko D-2022-019 erabakia: San Laurendi elizako organoa OLORON ORGUES elkarteari saltzea 4 500 €ren truke.
 - 2022ko agorrilaren 16ko D-2022-020 erabakia: 1 800 000€ko mailegu baten hartzea LA BANQUE POSTALE bankuan.
 - 2022ko agorrilaren 29ko D-2022-021 erabakia: M 57 nomenklatura ezartzearen ondorioak jasaten dituzten ibilgetuen kontuen ezapena aldatzea, bereziki 2135 kontua Altxortegira aldatzea.
 - 2022ko agorrilaren 29ko D-2022-022 erabakia: M 57 nomenklatura ezartzearen ondorioak jasaten dituzten ibilgetuen kontuen ezarpena aldatzea, bereziki 2161 kontua Altxortegira aldatzea.
 - 2022ko agorrilaren 29ko D-2022-023 erabakia: M 57 nomenklatura ezartzearen ondorioak jasaten dituzten ibilgetuen kontuen ezarpena aldatzea, bereziki 2182 kontua Altxortegira aldatzea.
 - 2022ko agorrilaren 29ko D-2022-024 erabakia: M 57 nomenklatura ezartzearen ondorioak jasaten dituzten ibilgetuen kontuen ezarpena aldatzea, bereziki 2183 kontua Altxortegira aldatzea.
 - 2022ko agorrilaren 29ko D-2022-025 erabakia: M 57 nomenklatura ezartzearen ondorioak jasaten dituzten ibilgetuen kontuen ezarpena aldatzea, bereziki 2184 kontua Altxortegira aldatzea.
 - 2022ko agorrilaren 29ko D-2022-026 erabakia: M 57 nomenklatura ezartzearen ondorioak jasaten dituzten ibilgetuen kontuen ezarpena aldatzea, bereziki 1327 kontua Altxortegira aldatzea.
 - 2022ko agorrilaren 31ko D-2022-027 erabakia: Arnaga etxearentzako 500 €ko balioa duten Jean Veber margolariaren margolaritza materialaren eskaintza onartzea.
 - 2022ko irailaren 7ko D-2022-028 erabakia: honako materialen erosteko Prozedura Egokituko merkatuko atalen onartzea eta izenpetzea esleipendunekin:
 - gurpildun pala mekanikoa (M3 enpresari, 124 800 € zergaz kanpo)
 - traktore bat (GASSUAN enpresari, 31 680 € zergaz kanpo)
 - 2022ko irailaren 19ko D-2022-029 erabakia: Pirinio Atlantikoetako departamenduari dirulaguntza baten eskatzea « Terres de jeux 2024 » deituriko proiektu deialdiaren baitan, ezker paretaren eraberritzeko; 625 650 €.
 - 2022ko urriaren 5eko D-2022-030 erabakia: kredituen transferentziak aitzineko kontu ekitaldietako tituluen deuseztatze.

69 – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): Energia Partekatuaeren Zerbitzuan izena ematea (CEP).

Peio Etcheleku jauna gelan sartu da.

ERABAKIA

Goytino jaun auzapez ordeak honakoa azaldu du:

Gaur egun energia gain-kontsumo eta prezioen gorakadaren testuinguruan, TE64 bazkide dituen herriko etxeak lagundu nahi izan ditu beren kontsumoa kontrolatzeko eta negutegi eragineko gasen isurtzeak (CO2) murriztuz beren ingurumenaren gaineko eragina txikitzeko.

Energia alorrean egiten dituen ekintzen esparruan, TE64k tokiko erakundeei proposatzen die Energia Aholkulari bat eskura ezartzea. Eskaera eginen duten erakundeek Energia Aholkulari bat eskura izanen dute, denbora partekatuan. Aholkulari hori energia hornitzaile eta ikerketa bulegoengandik osoki independentea denez, tokiko erakundeentzako solaskide ezin hobea da.

Energia aholkulariak herriaren eraikinak aztertuko ditu funtzionamendu aurrezkiak atzemateko eta energia gastuen kontrolatzeko.

Konkretuki, herriko eraikin seinalatuen energia auditoriak eginen ditu, eta horien ondotik lan iradokizunak eginen ditu, urte anitzeko finantzazio plan batekin.

Sindikatu bulegoaren 2017ko maiatzaren 30eko 017-019 erabakiaren arabera, bazkidetza 2 500 €koa da, jakinez prezioa herriak urtarrilaren 1ean duen biztanleriaren arabera finkatua dela, eta herria iraupen mugarik gabe engaiatzen dela urraspidean.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ERABAKI DU, TE64ren Energia Aholkulari bat eskura ezartzea, iraupen mugagabe batentzat. Zehaztu du bazkidetza edozein momentutan deusezta daitekeela, eta horretarako herriak erabakia hartu beharko duela. Bazkidetzaren deuseztatzea n urteko abenduaren 31an indarrean sartuko da. Halere, zehaztu du bazkidetza gutxienez 3 urtekoa izan beharko dela.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari TE64rekin hitzarmena izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Bacardatz jaunak galdetu du orain dela bizpahiru urte hartu zen erabakia, hots ohiko operadorea uztea eta erosketa taldean sartzearena, baloratzeko ikerketak egin direnez eta ea ekonomia eragina aztertua izanen ote den kontratu horretan.

Goytino jaunak ihardetsi dio Energia Aholkulariari dagokionez, finantzatzeko onurak aztertuko direla, eta TE64rekin dagoen energia kontratuari datxizkion diru mekanismoei buruzko informazioa ematea. Gomendio zerrenda luze bat eginga da, baita finantza ikuspegitik ere.

Bacardatz jaunak gehitu du etorriko den neguarekin, eta energia prezioen emendatzearekin beste hornitzaile baten hautatzeak eraginak izanen dituela, hornitzaile historikoa uztearengatik.

Goytino jaunak adierazi du lehen azterketak egingen direla eta hori baino urrunago joan beharko dela ikerketa bulego baten laguntzarekin.

Bacardatz jaunak galdetu du ea ikerketak egin diren lanen inbertsio-errentagarritasunaren eta inbertsioek fakturazioan izan duten eraginaren berri emanen duen.

Goytino jaunak zehaztu du dena kontuan hartzea pentsatua dela.

70 – Argiteria publikoaren itzaltze partziala.

Corinne Othatcegy gelatik atera da.

Maria Aristizabal gelan sartu da.

ERABAKIA

Goytino jaunak, auzapez ordea, oroitarazi du herriko etxeak energia kontsumoen kudeatze alderako ekintzak hasteko borondatea duela. Hori dela-eta, Herri Biltzarrak gogoeta bat abiatu du, argiteria publikoa gauez partzialki itzaltzearen egokitasunaz eta aukerez.

Elektrizitate kontsumoaren faktura murrizteaz gain, halako neurri batek ingurumena ere zainduko luke, negutegi eragineko gasen isurpenak tipituz eta argi-kalteak borrokatuz. Argiteria publikoaren ibilmoldea auzapezaren eskumena da, zeinak erabaki dezakeen funtzionamendua mugatzea, bide eta karriketako erabiltzaileen segurtasuna, trafikoaren jarioa eta pertsona zein ondasunen babesa bermatuz. Halako neurriak hartu dituzten beste herri zenbaiten esperientzia kontuan izanik, argiteria publikoa gauez itzaltzeak ez du eragin handirik ordu batzuetan.

Teknikari dagokionez, argiteria itzaltzeko ordulariak ezarriko dira argiteria multzoak kudeatzen dituzten armairu bakoitzean. Erabaki horrek biztanleriaren informazioa egitea eskatzen du, eta seinalatze berezia.

Bestak edo ekitaldi bereziak antolatzen direnean argiteria publikoa pizturik atxikitzen ahalko da nahi bezala.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ERABAKI DU, argiteria publikoa gauerditik goizeko 6ak arte itzaltzea, udako tenorea itzuli arte,

BAIMENA EMAN DIO auzapezari neurri horren egikaritzeko ordenantzak hartzeko, bereziki hunkituak izanen diren lekuak, itzaltze ordutegiak, biztanleriaren informazio eta seinalatze bereziak zehaztuko dituztenak.

HITZ HARTZEAK:

Goytino jaunak azaldu du argiteria publikoaren itzaltze partziala 2013 edo 2014ko gaia dela, non argiteria publikoaren hobetzeaz gogoetetzen hasi baitzen. Orduan, LED bonbilarik ez zegoenez, bi argitik bat itzaltzea erabaki zen.

LEDak ezarri eta sareetan eskuhartzeak egin direnetik hainbat desbideratzez ohartu direla oroitarazi du. Xedea da funtzionamendu bertutetsuagoa atzematea, beste herri batzuek egiten duten bezala argiteria osoki itzaliz. Goytino jaunak zehaztu du Urruñara joan dela, non herriak argiteria publikoa

gauerditik goizeko 6ak arte itzaltzen duen, baina erabiltzaileek, aplikazio baten bidez, argiteria piztu dezaketen beren beharren arabera.

Hartzea proposatzen duen erabakiak herriko argiteria gauerditik goizeko seiak arte itzaltzea finkatuko du. Informazio herri aldizkariaren, panel argituen eta webgunearen bidez zabalduko da.

Bestak edo ekitaldi bereziak antolatzen direnean argiteria publikoa pizturik atxikitzen ahalko da nahi bezala.

Bacardatz jaunak proiektua interesgarria dela azpimarratu du, eta herritarrek karririk pizteko aukera izanen dutela.

Vincent Goytino jaunak azaldu du aplikazioak erabiltzailearen kokapen geografikoa erabiltzen duela. Azaldu du ere herriak esperimentazioa egin duela eta gaur egun dispositiboa orokortzen ari dela.

Auzapezak oroitarazi du amortizazioa 20 000 eurokoa dela eta 5 000 euroko abonamendua behar dela gutxienez hasierako hiru urteetan.

Zerbitzu teknikoetako zuzendariak zehaztu du ekipamenduaren amortizazioa sei hilabetetan egin dela, urteko abonamenduarekin. Instalazioen antzekotasuna azpimarratu du, hertsapen batekin halere: argia hoztua izatea itxaron behar da berriz piztu aitzin.

Aiçaguerre andereak erabakia biziki begi onez ikusten du, eta oroitarazi du behin eta berriz hori eskatu zuela baina ez zitzaiola kasurik egin. Argiteria piztua izanen den ordutegia galdegin du.

Eraikinetako arduradunak zehaztu dio 18etatik gauerdi arte eta goizeko seietatik zortzietara piztua izanen dela.

Beyrie andereak galdegin ea Kanbo gai hori lantzen ari ote den.

Goytino jaunak baietz, eta hurrengo urratsa Urruñak egin duen gauza bera onartzea izan daitekeela.

Corinne Othatcegy anderea gelatik atera da (19:35)

Auzapezak azaldu du bere taldeak gaia aztertu duela Urruñakoaren berri izan bezain laster. Kanbori dagokionez, Urruñak egin duen esperimentazioaren antzekoa, hots hiru urtekoa, egitea atxiki dute. Alabaina, Kanboko udalaren epe ertaineko helburua arrunt bestelakoa da. Ideia litzateke herri eremu osoa LED bonbilekin ekipatzea. Honela kontsumoa kudeatu ahalko da, potentzia tipituz eta aplikazio horren beharrik izan gabe. 3 edo 4 urteko inbertsio horiek 350 000 eta 400 000 euro arteko gastua suposatzen dute.

Peio Etcheleku jaunak zehaztu du gauza horien egiteko dirulaguntzak badirela.

Auzapezak zehaztu du, bistakoa dela bidera daitezkeen dirulaguntza guztiak eskatuko dituela.

Maria Aristizabal anderea gelan sartu da (19:40)

Bacardatz jaunak galdetu du ea LEDak ezarri-eta gauaz argiteria itzaliko den edo soilik intentsitatea tipitu.

Auzapezak zehaztu du LEDak pizturik atxiki daitezkeela, zeren segurtasunaren arazoari aterabidea ematen ahal baitio horrek.

Goytino jaunak gehitu du LED bonbilekin usaiakoekin baino gutxiago kontsumitzen dela.

Philippe Bacardatz jaunak landareen eta faunaren gainean argiteriak duen eragina azpimarratu da.

Auzapezak oroitarazi du parametro guztiak kontuan hartu behar direla: segurtasuna, lapurretak eta energia kontsumoa.

Hiriart-Urruty andereak Hardoya auzoan dituzten arazoek berri eman du, eta bertako bizilagunak kexu direla.

Eraikinen arduradunak zehaztu du ostiralaz geroztik konpondua dela, eta zehaztu du auzoko muturra eta etxe multzokoa ez direla herriaren eremuan.

63–Fagalde etxearen eskuratzeko proiektua.

ERABAKIA

Magis jaunak biltzarkideei azaldu die, Genay anderea zendu denetik, haren oinordekoek herriari jakinarazi diotela «Fagalde» etxea, Kanboko Elizako Plazako 7.ean dena, saldu nahi dutela.

Zehaztu du, eraikin hori lorategia duen bizitegia dela 790 m²ko azalera bizigarria deklaratu duena, eta zoruaren 270 m² okupatzen dituen. FAGALDE eta GENAY enparauen jabegoa dela, ez dela okupatua eta katastroko BA sekzioko 106tik 109ra, 113, 114 et 116, zenbakiko lur sailak biltzen dutela, orotara 2 925 m²ko azalerarekin.

Magis jaunak oroitarazi du, 2021eko apirilaren 12ko erabakiz, Kanboko Herri Biltzarrak adierazi duela herriak lur sailen politika bat eraikitzeke xedea azaldu zuela, zeinak funts erreserbak osatzeko eta ekimen publikoko proiektuak bideratzeko xedea duen.

Azpimarratu du, aipagai den jabegoa ToLFEPekin batera osatu den Herriaren Erreferentzialeko lanetan markatu diren sektoreetako batean kokatzen dela, eta Erreferentzial hori 2021ean lantzen hasi eta 2021eko irailaren 15ean aurkeztu zitzaiola Herri Biltzarrari.

Euskal Elkargoko Batzorde nagusiak 2019ko otsailaren 2an onartu Kanbo herriko Tokiko Hirigintza Planeko (THP) Antolamendu eta Garapen Iraunkorreko Proiektuak (AGIP) honela dio 6. orrialdean: «Etxebizitza: Herri erdigunearen nortasuna zaintzea (...) herriaren ondare garrantzitsua diren etxe/parke bikoteak zainduz: eraikuntza horiek beren landare ingurunean atxikiz, zatikatzea eta dentsifikatzea saihestuz(...).

Magis jaunak zehaztu du, ondasun horren eskuratzearekin:

- herriko erdigune historikoan kokatua denez, elizatik eta Errobi ibairako ikuspegitik biziki hurbil izanik(Terrazen hiribidea),
- hirigintza ikuspegitik sektore urbanizatuan denez (THPko UA eta UB) ;
- jabegoaren zati bat (lorategiak eta parkeak) paisaiaren elementu bezala markatua, eta bestea (eraikuntzak) indarrean den THPn Frantziako Hirigintza Kodeko. L. 151-19 artikuluaaren arabera eraikin identifikatu bezala markatua denez;

Herriaren proiektua gauzatzeko egokia dela, honako gaien inguruan:

- eraikinen eta parkearen zaharberritzea;
- ondare horren balioan ezartzea eta menturaz publikoari irekitzea;
- etxebizitzak eta/edo bulegoak (komertzialak eta/edo kulturalak, edo biztanleriarentzako zerbitzuak) ezartzeko aukera;

Negoziatu eta gero, jabeek eta herriak 1 100 000 euroko salmenta prezioa adostu dute, hots domeinuen prezioek egin duten balorapena. Prezioa finkoa da; ezingo zaio inolako ordain saririk gehitu.

Herri Biltzarrari eskatu dio horri buruz erabakitzea.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

AGINDU DIO: Auzapezari higiezin ondasun horren erosteko prozedura bideratzea.

BAIMENA EMAN DIO: Auzapezari erabaki honen egikaritzeko izapide guzien egiteko.

HITZ HARTZEAK:

Jean-Paul Alaman jaunak galdetu du ba al dakiten zer nolako obra agintaritza izanen den, hots Nivaldiarentzat bezala partaidetza sozial edo pribatua izanen ote den, ala herriak bere gain hartuko duen obra agintaritza. Gero, eraikin horrek Kanbo erdigunea duen garrantzia eta kokapen estrategikoa kontuan izanik, beste proiektu batzuentzat bezala ad hoc batzorde bat sortuko ote den galdetu du, ekintza horren programazioan lan egiteko, gogoetetan parte hartzeko eta ideiak eman ahal izateko.

Auzapezak baieztatu dio Beaulieurentzat ad hoc batzorde bat izanen dela, eta Fagalderentzat ere. Oraingoz, eta Fagalde anderea zendu geroztik, ondasunaren salmentaz arduratzen den agentziarekin lan egin duen bulego batekin harreman bakarra izan dugu.

Etcheleku jaunak ohartarazi du proiektu hori onartzen duela.

64 – Elorria bideko lur sail baten eskuratzea.

ERABAKIA

Magis jaunak, auzapez ordea, Herri Biltzarrari jakitera eman dio Hazparneko Mély SAUTIER notarioak herriari gutun bat igorri diola 2022ko ekainaren 10ean, erranez LESTRADE jaun-andereek Elorria bidean dituzten AD 63 eta 64 oihan lur sailak saldu nahi dituztela.

Zehaztu du, Frantziako Oihan Kodeko L 331-24 artikulua eta ondokoen arabera, herriak erosteko prestutasuna jakinarazi duela, 3500 €ko prezio batean, 2022ko uztailaren 7ko gutun bidez.

1 244m²ko AD 63 saila eta 1 159 m² AD 64 saila Errobi bazterrean daude, herriarenak diren beste sail batzuen segidan. Herriari interesatzen zaio lur sail horien erostea, izaera naturala atxikitzeko eta bioaniztasuna zaintzeko.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU, orotara 2 403 m²ko AD 63 eta 64 sailak erosteko prestutasuna agertzea, 3 500 €ko prezioan.

ZEHAZTU DU, ekintza horren burutzeko gastuak herriaren gain izanen direla.

AGINDU DIO, Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide guzien egitea.

65 – Ezker paretaren zaharberritzea: proiektuaren onespena.

ERABAKIA

Eyherachar jaunak, biltzarkide delegatua, oroitarazi du, 2021ean diagnostiko eta programazio misio bat abiatu zuela herriko etxeak ezker paretaren zaharberritzeko eta energia berriztagarrien ekoizteko hainbat aukera aztertzeko.

Izan ere, ekipamendu hori oso erabilia da. Bereziki Kanboarrak pilota taldeak, herriko etxeak aisialdi gunearekin, eta bertako hainbat elkartek dute erabiltzen. Gainera, lehen mailako ikastetxeek eta kolegioek ere erabiltzen dute.

Ondorioz, eraikin hori herriaren bizitasuna atxikitzeko antolatzen diren ekitaldi askorentzako ezinbestekoa da.

Udalak herriko elkarte bizia aberasteko helburua zuten hainbat proiektu sustatu ditu (animazio aretoa eta "Gurutze Gorriarentzako" lokala) baita gure herrikideen kirol praktika sustatzeko (tenis zelai estaliak).

Zaharberritze proiektuak teknikoki honako helburuak segituko ditu:

- Eraikina irisgarritasun eta segurtasun araudietara egokitzea,
- Kirol zoruaren eta elementu teknikoaren eraberritzea (elektrizitatea, bentilazioa, ur beroaren hornikuntza, komun eta garbigelak...),
- energia ekoizpena panel fotovoltaikoen bidez.

Helburu tekniko horiez gain, proiektuak begi bistako kirol dimentsioa ere badu. Kirol ekitaldi gehiago errezibitzeko xedea da baita kirol jarduera desberdin gehiago ere:

- horma higitari baten ezartzea 30m-tan,
- harrera gela baten antolatzea,
- aparkalekuen berrantolaketa eraikinerako sarbidea hobetzeko.

Oraingoz, proiektuaren aurrekontua 2 085 500, 00 €koa da, zergaz kanpo (lanak, diagnostikoa, kontrol teknikoa, obra kudeantza).

Herri Biltzarrak, Eyherachar jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU ezker paretaren zaharberritzeko eta energia mailan hobetzeko proiektua,
ONARTU DU obraren kudeatzeko taldea deialdi publiko bidez hautatzea,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, herriaren partaide guztiei ahal bezainbat dirulaguntza eskatzeko.

HITZ HARTZEAK:

Alain Boscq jaunak galdetu du ea planorik izanen den.

Jean-Paul Eyherachar jaunak ezetz, zaharberritze ideien inguruan lan egiten baitute.

Auzapezak oroitarazi du, programa bat badagoela, eta obra kudeatzaileek dutela alde teknikoa eta inguruko guztia hautatuko.

Eyherachar jaunak jakinarazi du irisgarritasun arauetara egokitzeko diagnostiko bat egina izan dela aurrekontu batekin. Aldageletan estankotasun arazoak badirela oroitarazi du, eta sare elektrikoa berriz egiteko, eta gogoz 1,2 milioi inguru kostatuko dela. Panel fotovoltaikoei dagokienez, SDEPAk egituraren azterketa bat eginen du, ikusteko ea eraikinak halako instalazioa onar dezakeen.

Vincent Goytino jaunak zehaztu du eraikinaren orientazioa ona dela, eta ondorioz, teilatuak panelak jasan baditzake egiten ahalko litzatekeela. Erantsi du amianto diagnostiko batek baieztatu duela teilatuak ez duela amiantorik.

Auzapezak oroitarazi du hastapenean ez zutela hain proiektu handi batean pentsatu. Gaurko helburuak arunt bestelakoak dira, egiteko erabakia hartua izan da, orain ikusi behar zer baldintzatan.

Medevielle jaunak, zerbitzu teknikoetako zuzendaria, oraingoz programaren fasean gaudela oroitarazi du, eta obra kudeatzaileak espazio erantsiak landuko ditu. Panel fotovoltaikoei dagokienez, zaharberritze oso bat aipatua izan da, eta energia berriztagarri soluzioak aztertzea.

Bacardatz jaunak, «harrera gela baten egitea, gaur egungo gela-erabiltzaileekiko» irakurtzean galdetu du ea elkarteak eskura ezarri zitzaion lokala erabiltzen ahalko duen.

Eyherachar jaunak erantzun dio dantza gela landua izanen dela, lehiaketak errezibitzeko gaitasuna eskaini dezan horma mugikorra eta harrera gelari esker. Ondorioz, inguruko egiturek proiektuarekin bat egin behar dute.

Medevielle jaunak zehaztu du helburua ez dela gehiago eraikitzea, eta hautu tekniko eta finantzazkoak obra kudeatzailearekin aipatuko direla.

Auzapezak adierazi du gelak pilota elkarteaz aparte beste elkarte batzuk hartzen ahalko dituela, jakinez pilota elkarteak egoitza soziala behar duela.

66 – Arnagako zalditegien eta laranjategiaren zaharberritzea: proiektuaren onespina.

ERABAKIA

Eyherachar jaunak, herri biltzarkide delegatua, oroitarazi du Arnaga etxea arraberritzeko eta bertako segurtasuna hobetzeko lanak abiatu zituela orain zenbait urte. 2022-2023 neguan, hots Arnaga hetsia denean, zehar burutuko den azken faseak ipar-mendebaldeko eta hego-mendebaldeko fatxadak konpontzeko eta margotzeko lanak eramanen dira. Halaber, hiru pergolak eta zerbitzu-eskailera ere landuko dira.

Inbertsio proiektu handi hauen ildotik, diagnostiko eta programazio eginkizuna esleitu zaie Isabelle JOLY arkitektoari eta PIEL Architecture bulegoari, Laranjategiaren eta Zalditegien balioan ezartzeko gogoeta bat eraman dezaten.

Eraikin horietan zaharberritze lanak eginez, herriak Arnagako bisitarien museo esperientzia osatuko luke eta zerbitzu gehigarriak eskaini, publikoari irekiak diren eraikinen (PIE) eta monumentu historikoen (MH) araudiak betez.

Laranjategiari dagokionez, zaharberritze lanez gain, harrera gunen modular bat egitea aurreikusten da.

Zalditegiei dagokienez, zaharberritze lanen helburu nagusia denboran zehar desagertu diren arkitektura elementuak berriz agerian ezartzea izanen da. Lan horiei esker, harrera gune bat sortuko litzateke, erakusketa iragankorrak ezarri ahal izateko, teknologia berriak txertatzeko, pedagogia gela baten antolatzeke, eta abar.

Bi eraikin horietako lanez gain, lekurako sarbidea ere landuko da, aparkatzea hobetzeko batetik eta oinezkoen zirkulazioa errazteko.

Dagoeneko, bi eraikinen zaharberritze lanen kostua 658 000,00 €-tan aurreikusten da, zergaz kanpo, eta horri gehitu beharko zaizkio obra kudeatzailearen fakturak. Zenbateko orokorra eginen diren hautuen arabera aldatzen ahalko da.

Aitzin proiektu hori dela-eta, herriak deialdia plazaratu nahi luke proiektuaren gauzatzeko obra kudeatzailea hautatzeko.

Herri Biltzarrak, Eyherachar jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, gehiengoz:

ONARTU DU Arnagako zalditegien eta laranjategiaren zaharberritze programa,

ONARTU DU obraren kudeatzeko taldea deialdi publiko bidez hautatzea,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, herriaren partaide guztiei ahal bezainbat dirulaguntza eskatzeko.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

HITZ HARTZEAK:

Alaman jaunak adierazi du Arnaga, museoa izanik, etengabe berritua izan behar dela, erakargarri izaten segitzeko, bereziki Laranjategia. Harrera gunea zaharkitua aipatu du eta gune horrek behar dituen lekua eta beharrak. Aitzitik, Alaman jaunak zalantzak ditu kultur aurrekontuaz, bere ustez ez baita behar bezala bideratua, ezen erran ohi baita Kanbon kultura Arnaga dela, baina beharbada ez soilik.

Herriak orain urte andana erosi zuen Assantzaren hiltzori egoera azpimarratu du. Oroitarazi du Arnagak berritua izan behar duela, alabaina deitoratu du kultur aurrekontu guztia Arnagara bideratua dela, eta biztanleentzako kultur herrikoia eskasa dela. Zalantzak agertu ditu erakusketa gela txiki batentzako, erakusketa panelekin eta museokoa omen litzatekeen argiteriarentzako aurrekontuari buruz.

Auzapezak oroitarazi du Arnagaren eraberritzea 1995ean jadanik aipatu zela, eta oraingoan erabaki ausartak hartzen direla. Assantzaz duen ikuspegia partekatu du: lekua hobetzea, gehigarri batzuekin, leku egokia eta ezin hobeia izan dadin. Haren inguruan dauden eraikin guztiekin, bilakaera aukerak ez dira falta. Oroitarazi du udalak ahalegin guztiak egiten dituela bertan erakusketak erregulartasunez antolatzeke.

Aïçaguerre andereak galdetu du ea abiatu den diagnostiko eta programazio eginkizuna herri biltzarrean bozkatua izan ote den, eta eremu modularra bulego berezituaren proposamena izan den ala herriko etxearena.

Auzapezak ihardetsi dio bozka izan dela, eta programa hori herriko etxearen nahia dela. Aïçaguerre andereak zer eginen duten galdegin du.

Auzapezak oraingoz deus, zeren obra kudeatzaile baten hautatzeko deialdia egin behar baita lehenik. Joly eta Inchauspé bulegoei kontsulta egin zaie proiektuaren egingarritasunaz, eta eginkizun mugatu baten baitan, diagnostikoa egin dute.

Aïçaguerre andereak galdetu du ea Laranjategiko salmenta gunea kendu ala lekuz aldatuko ote duten.

Auzapezak ihardetsi dio programak duela hori zehaztu beharko.

Aïçaguerre andereak oroitarazi du BTS-ko ikasleek Arnagaren ikuspegiak lan bat egin zutela eta ideia biziki onak eman zituztela.

Auzapezak baieztatu dio proiektu hori ikusi duela. Beste galderarik ba ote den galdetu du.

Hiriart-Urruty andereak harridura adierazi du 658 000 euroko zenbatekoaz, eta obra kudeatzailearen saria baloratu eta dirulaguntzak ikertu ote diren galdetu du.

Auzapezak erantzun dio Arnagak erregulariki eskuratzen dituela dirulaguntzak, Akitania-Berriko Kultur Gaietarako Zuzendaritzatik besteak beste. Gehitu du bilanak eta proposamenak egingen direla lan horien diruztatzeko eta hautu bat egin beharko dela.

Auzapezak oroitarazi du dena aztertuko dela eta aterabiderik onena hautatuko.

Hiriart-Urruty andereak arrangura adierazi du energiari buruz, prezioen emendatzearekin, eta gogoratu du hori zaindu behar dela.

Auzapezak ihardetsi dio herri biltzar honetan hainbat proiektu aztertuko dituztela, helburua izanik aurrera segitzea zentzuzko diruztapen bideak atzemanez.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du diru anitz baldin badela, posible litzatekeela beste gauza batzuetarako erabiltzea.

67-A – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): Hautzain auzoko argiteria publikoa berritzeari loturik, « Komunikazio Elektronikoentzako Obra Publikoa, A2021 opzioa ».

ERABAKIA

Magis jaunak, auzapez ordea, Herri Biltzarrari jakitera eman dio Herriak Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari (TE64) eskatu diola Hautzain auzoan airean gelditu diren tentsio baxuko sareen lurperatzearen baitan komunikazio elektronikoentzako lanentzako ikerketa egitea. TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbatekoak izanen litezkeen obren gastuak, eta Hazparneko COREBA enpresak egingen dituela.

Magis jaunak zehaztu du lan horiek « Génie Civil Communications Electroniques Option A 2021 » Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeztuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU, lehenago aipatu lanen eginaraztea, eta Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,

ONARTU DITU, lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:

Lanen zenbatekoa zergak barne	5 456,40 €
Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak.....	545,64 €
TE64 ren kudeaketa gastuak	227,35 €
OROTARA	6 229,39 €

ONARTU DU, ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:

Herriak funts libreekin ordainduko duena	6 002,04 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan (funts libreekin ordaintzekoa)	227,35 €
OROTARA	6 229,39 €

Herriak zehazki ordaindu beharko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da.

Gainera, herriak bere parte hartzea funts libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

ONARTU DU, herriaren jabego pribatuan balizko pasaia eskubide baten ematea.

67-B – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): horma elektrifikazioa – Haurtzain auzoko argiteria publikoa eraberritzeko programa.

ERABAKIA

Magis jaunak, auzapez ordea, Herri Biltzarrari jakitera eman dio Herriak Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari (TE64) eskatu diola Haurtzain auzoan airean gelditu diren tentsio baxuko sareen lurperatzearen baitan argiteria publikoarentzako lanentzako ikerketa egitea.

TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbatekoak izanen litezkeen obren gastuak, eta Hazparneko COREBA enpresak egingen dituela.

Magis jaunak zehaztu du lan horiek «Rénovation EP (SDEPA) – Rénovation 2021» Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeztuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU, lehenago aipatu lanen eginaraztea, eta Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,

ONARTU DITU, lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:

Lanen zenbatekoa zergak barne	10 936.55 €
Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak.....	1 093.66 €
TE64 ren kudeaketa gastuak	455.69 €
OROTARA	12 485.90 €

ONARTU DU, ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:

Partzuergoaren parte hartzea	4 010.07 €
Herriak funts libreekin ordainduko duena	8 020.14 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan (funts libreekin ordaintzekoa)	455.69 €
OROTARA	12 485.90 €

Herriak zehazki ordaindu beharko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da.

Gainera, herriak bere parte hartzea funts libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

ONARTU DU, herriaren jabego pribatuan balizko pasaia eskubide baten ematea, eta aukera badenean TE64ri baimena ematea energiaren aurrezte egiaztagirien eskuratzeko.

67-C – Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): horma elektrifikazioa – Haurtzain auzoko programa « Article 8 BT (Bayonne) 2021 ».

ERABAKIA

Magis jaunak, auzapez orde, Herri Biltzarrari jakitera eman dio Herriak Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari (TE64) eskatu diola Haurtzain auzoan airean gelditu diren tentsio baxuko sareen lurperatzearen osatzeko ikerketa egitea.

TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbatekoak izanen litezkeen obren gastuak, eta Hazparneko COREBA enpresak egingen dituela.

Magis jaunak zehaztu du lan horiek «Article 8 (Bayonne) 2021» Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeztuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU, lehenago zehaztu lanen eginaraztea, eta Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,

ONARTU DITU, lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:

Lanen zenbatekoa zergak barne	93 009.79 €
Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak.....	9 300.98 €
Notario saria funts libreekin.....	690.00 €
TE64 ren kudeaketa gastuak	3 875.41 €
OROTARA	106 876.18 €

ONARTU DU, ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:

Kontzesio hartzailearen partehartzea	34 379.59 €
Partzuergoaren parte hartzea.....	34 379.59 €
TE64k aurretiaz ordaindutako BEZ	17 051.79 €
Herriak funts libreekin ordainduko duena	17 189.80 €

Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan
(funts libreekin ordaintzekoa) 875.41 €
OROTARA106 876.18 €

Herriak zehazki ordaindu beharko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da.

Gainera, herriak bere parte hartzea funts libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

ONARTU DU, herriaren jabego pribatuan balizko pasaia eskubide baten ematea.

HITZ HARTZEAK:

Bacardatz jaunak jakin nahi zuen zer sare mota lurperatu den, ikusteko ea estetika edo teknika arrazoiengatik egin den.

Medevielle jaunak, zerbitzu teknikoetako zuzendaria, Haurtzain auzoko lurperatze lanen segida zela, lorategi publikotik Haurtzain auzoraino. Zehaztu du, hasieran sare hutsa zela, baina urgentziazko esku hartze batengatik, irailean elektrizitate hari bihurtutua ezarri behar izan zutela gainaldean.

Bacardatz jaunak bere galdera osatzeko galdetu du ea Herriak Enedisengana jo ote duen, lan horien baliatzeko beste sare huts baten ezartzeko. Oroitarazi du, halako inbertsioa egiten den bakoitzean ber galdera egiten duela.

Medevielle jaunak, zerbitzu teknikoetako zuzendaria, ihardetsi dio Haurtzain auzoan agertu zen aukera baliatu zutela, eta Enedis-ek diruztaturiko inbertsio hori baliatu dela Goi Tentsioa lurperatzeko eta Tentsio Baxua segurtasunean ezartzeko.

Magis jaunak Bacardatz jaunaren hitzak baieztatu ditu, eta proposatu dio bilkura batean berriz erran ditzala.

68-A - Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): Eskolen karrrikako argiteria publikoa berritzeari loturik, « Komunikazio Elektronikoentzako Obra Publikoa, A2022 opzioa ».

ERABAKIA

Magis jaunak, Herri Biltzarrari jakitera eman dio Herriak Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari (TE64) eskatu diola Eskolen karrrikan tentsio baxuko sareen lurperatzearen baitan komunikazio elektronikoentzako lanentzako ikerketa egitea.

TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbaterakoak izanen litezkeen obren gastuak, eta SPIE/REY BETBEDER Taldeak egingen dituela.

Magis jaunak zehaztu du lan horiek « Génie Civil Communications Electroniques Option A 2022 » Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeztuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU, lehenago zehaztu lanen eginaraztea, eta Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,

ONARTU DITU, lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:

Lanen zenbatekoa zergak barne	20 555.16 €
Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak.....	2 055.52 €
TE64 ren kudeaketa gastuak	856.47 €
OROTARA	23 467.15 €

ONARTU DU, ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:

Herriak funts libreekin ordainduko duena	22 610.68 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan (funts libreekin ordaintzekoa)	856.47 €
OROTARA	23 467.15 €

Herriak zehazki ordaindu beharko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da.

Gainera, herriak bere parte hartzea funts libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

ONARTU DU, herriaren jabego pribatuan balizko pasaia eskubide baten ematea.

68-B - Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): horma elektrifikazioa – Eskolen karrikako argiteria publikoa eraberritzeko 2022ko programa, EP (SDEPA).

ERABAKIA

Magis jaunak, Herri Biltzarrari jakitera eman dio Herriak Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari (TE64) eskatu diola Eskolen karrikan tentsio baxuko sareen lurperatzearen baitan argiteria publikoaren lanentzako ikerketa egitea.

TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbatekoak izanen litezkeen obren gastuak, eta SPIE/REY BETBEDER Taldeak egingen dituela.

Magis jaunak zehaztu du lan horiek «Rénovation EP (SDEPA) – Rénovation 2022» Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeztuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU, lehenago zehaztu lanen eginaraztea, eta Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,

ONARTU DITU, lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:

Lanen zenbatekoa zergak barne	39 046.06 €
Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak.....	3 904.61 €
TE64 ren kudeaketa gastuak	1 626.92 €
OROTARA	44 577.59 €

ONARTU DU, ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:

Partzuergoaren parte hartzea	12 000.00 €
Herriak funts libreekin ordainduko duena	30 950.67 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan (funts libreekin ordaintzekoa)	1 626.92 €
OROTARA	44 577.59 €

Herriak zehazki ordaindu beharko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da.

Gainera, herriak bere parte hartzea funts libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

ONARTU DU, herriaren jabego pribatuan balizko pasaia eskubide baten ematea, eta aukera badenean TE64ri baimena ematea energiaren aurrezte egiaztagirien eskuratzeko.

68-C - Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (TE64): horma elektrifikazioa – Eskolen karrikako programa « Article 8 BT (Bayonne) 2022 ».

ERABAKIA

Magis jaunak, Herri Biltzarrari jakitera eman dio Herriak Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari (TE64) eskatu diola Eskolen karrikan tentsio baxuko sareen lurperatzearentzako ikerketa egitea.

TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbatekoak izanen litezkeen obren gastuak, eta SPIE/REY BETBEDER Taldeak eginen dituela.

Magis jaunak zehaztu du lan horiek «Article 8 (Bayonne) 2022» Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeztuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU, lehenago zehaztu lanen eginaraztea, eta Territoire d’Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,

ONARTU DITU, lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:

Lanen zenbatekoa zergak barne	98 999.15 €
Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak.....	9 899.92 €
Notario saria funts libreekin.....	345.00 €
TE64 ren kudeaketa gastuak	4 124.96 €
OROTARA	113 369.03 €

Onartzea, ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:	
Kontzesio hartzailearen partehartzea	36 000.00 €
Partzuergoaren parte hartzea	36 000.00 €
TE64k aurretiaz ordaindutako BEZ	18 149.84 €
Herriak funts libreekin ordainduko duena	19 094.23 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan (funts libreekin ordaintzekoa)	4 124.96 €
OROTARA	113 369.03 €

Herriak zehazki ordaindu beharko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da.

Gainera, herriak bere parte hartzea funts libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

ONARTU DU, herriaren jabetza pribatua balizko pasaia eskubide baten ematea.

HITZ HARTZEAK:

Bacardatz jaunak ohartarazi du 8. artikuluan akatsa badela, Tentsio Baxuari buruzkoa baita, eta ez argiteria publikoari buruzkoa. Izatez, 68 C-an, bigarren paragrafoan arazoa bada.

Magis jauna ados da, eta idazketa akatsa izan dela onartu du.

71 – Euskal Elkargoa: Burgaxiloan pasatzeko eskubide hitzarmena hoditeria berriarentzat.

ERABAKIA

Auzapezak oroitarazi du, Kanboko araztegirako saneamendu sareen berroneratzearen baitan (STEP située au Bas-Cambo), sareen pasarazteko eskubide bat erregularizatu behar dela.

Herriko BC0193 lur sailetik pasatzen den 350 mm-ko ur edangarriko hoditeriaren pasatzea erregularizatu behar da, zeinak Ursuiako ura garraiatzen baitu Baionaraino, ordura arte ez baita sareen pasarazteko eskubiderik eman.

Honako hitzarmenak, Euskal Elkargoaren eta Kanbo herriaren arteko partaidetza baldintzak finkatzeko xedea du:

- pasatzeko eskubidea
- lur sailaren jabetza eskubideak eta betebeharrak
- pasatzeko eskubidea urrikik
- Euskal Elkargoak hartzen dituen ardurak
- Euskal Elkargoak bere gain hartzen dituen gastu guztiak.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, erantsia den Euskal Elkargoarekin pasatzeko eskubide hitzarmenaren izenpetzeko.

72 – Euskal Elkargoa: Marieneko ur biltegiaren alde lur sail baten itzultzea.

ERABAKIA

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio, herrian uraren kudeaketaren eskumena duen Euskal Hirigune Elkargoa ados dela herriaren AM 27 zenbakiko lur sailaren erosteko, 1127 m²koa.

Marienia bidean den lur sail horretan ur biltegi bat bada, eta ondorioz Euskal Hirigune Elkargoa horren jabe bilakatuko da. Izan ere, Elkargoak ur biltegiaren berroneratze lanak egin nahi lituzke, indarrean ezarriko den Uren Osasun Segurtasuna Kudeatzeko Planaren baitan (PGSSE).

Herriak ez du ondasun horren atxikitzeiko interesik, eta mantenu gastuak EHE-ren gain izanen dira.

Frantses estatuko Higiezin Zuzendaritzaren iritzia ikusirik,

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU 1127 m²ko AM n^o 27 lur saila Euskal Hirigune Elkargoari euro sinbolikoaren truke alienatzea;

ZEHAZTU DU ekintza horretarako gastu guztiak Euskal Hirigune Elkargoaren gain izanen direla;

AGINDU DIO Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide guzaien egitea.

HITZ HARTZEAK:

Bacardatz jaunak galdetu du ea sarbidea hesiz inguratua izanen den.

Auzapezak ihardetsi dio, ekintza ur biltegiari soilik dagokiola.

73 – Antolamendu zergaren herriko zatiaren etekina Euskal Elkargoari derrigorrez isurtzea.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, honakoa azaldu du:

Frantziako Hirigintza Kodeko L.331-1 artikulua arabera, Herri Biltzarrak bere eremuan egiten diren antolamendu eta eraikuntza lanen gastuak diruztatzeko antolamendu zerga baten ezartzea erabaki zuela.

Frantses estatuko 2022ko finantza legeak herriek zerga horretatik biltzen dituzten etekinak herri elkargoarekin, hots Euskal Hirigune Elkargoarekin, partekatzea behartzen du, elkargoaren eskumenekoak diren gastuak hobeki kontuan hartzeko.

2022ko irailaren 24ko erabakiz, eta bere finantza eta zerga itunaren ildotik, Euskal Elkargoko Batzorde Nagusiak zerga horren isurtzeko esparrua finkatu zuen.

Honela, antolamendu zerga gisa, soilik elkargoaren eremuko jarduera ekonomiko berrientzako (sortzea/handitzea) emanen diren hirigintza baimenetatik datorren etekina isuri beharko da. Herriak zerga horren etekinaren zati handiena atxikiko luke bere hirigintza garapen beharrei erantzun ahal izateko.

Bestalde, herriak antolamendu zergaren zati bat atxiki lezake, baldin eta frogatuko balu, udal ekipamendu publikoen gastuak bere gain hartuko dituela elkargoko jarduera ekonomikoko eremuetan.

Herri Biltzarrak, Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, gehiengoz:

ONARTU DU, jarduera ekonomikoko eremu berrietan (sortzea/handitzea) eginen diren eraikuntzen gaineko antolamendu zergaren etekinen %100 Euskal Hirigune Elkargoari isurtzea,

ONARTU DITU, isurpen hitzarmenaren xedapenak, eta **BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari horien izenpetzeko,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari erabaki honen egikaritzeko izapide guzien egiteko.

Abstenitu da: Jean-Paul Alaman jauna.

Kontra bozkatu dute: Peio Etcheleku eta Jean-François Lacosta jaunek.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak azaldu du Euskal Elkargoaren itun fiskal eta finantzazkoari buruzko gaia dela, arazo ugari sortu dituen. Herriak antolamendu zerga gehienez %5ean bozkatu badu, lurraldeko beste herri batzuek ez dute hainbeste egin, edo ehuneko txikiagotan egin dute. Ondorioz, zerga horren isurtzea, nahiz eta soilik antolamendu berriei badagokie, ez du zuzentasun printzipioa betetzen, nahiz eta Auzapezak onartu egin diren gastu zenbait, hala nola errepideen mantenturako edo egiteko gastuak, zerga zenbatekotik ken zitezkeen. Bukatzeko, erran du herri batzuek ez dutela dagokien antolamendu zergaren %100 isuri behar.

Peio Etcheleku jaunak gehitu du itun fiskal eta finantzazkoa gehiengo oso erlatibo batekin bozkatua izan zela, hots 104/105 boz alde, 97 kontra eta hamabi bat abstentzio. Zehaztu du, itun horren printzipio orokorra barnealdeko herri txikien diru sarrera fiskalen kaltetan izan dela, eta elkargoko proiektuen onuran, bereziki kostaldeko proiektuen alde, ezen itun horren gibelean dagoena da, beheranzko konkurtso funtsak ezartzeko borondatea, elkargoak barnealdean egikaritzen dituen eskumenentzat. Etcheleku jaunak oroitarazi du itun fiskal horren espirituaren kontra, eraikia izan den bezala, agertu dela.

Berez, antolamendu zergaren logika ulertzen du. Azpimarratu du zer eragin duen kurtsorea %50 eta %100 artean ezartzeak, eta dispositibo horren kasuan %100ean, jarduera eremu berriak hartzeko uzkur diren herrientzat, eta gainera, jarduera eremu berriak egiteko gogoetak sustatzeko akuilatzerik ez dela. Herriari proposatu dio Elkargoak %75 hartzea eta herriak %25.

Auzapezak ihardetsi dio Kanbo herriak proposatu zuela antolamendu zergaren ehuneko bat atxiki zezaten herriek.

Alaman jaunak galdetu du ea gehieneko %5a Euskal Elkargoarekiko itunaren eskakizun bat denez, elkargoak nahi baitu herri guzietan berdintsu parte har dezaten, tasa goren horrekin.

Auzapezak ezetz erantzun dio. Zehaztu du Kanboren ehunekoa %5ean finkatu dela, baina Euskal Elkargoko herri batzuek ez dutela bozkatu.

74 - AGAZ: Kanboko AGAZera jiten diren Kanbotik kanpoko haurrentzako finantzazio hitzarmena.

ERABAKIA

Aristizabal andereak, auzapez ordea, oroitarazi du Errobi lurralde eremuko herriek erabaki zutela herritik kanpo aisialdi zentrora joaten diren haurrentzako diru parte hartze baten adosteko.

Haur bakoitzeko eta egun bakoitzeko 10 €tan finkatu zen.

Herri Biltzarrak, Aristizabal anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari Kanboko AGAZera jiten diren Zuraideko haurrentzako finantzazio hitzarmenaren izenpetzeko (eranskinean).

75– AGAZ: Jantegi elkartearekin hitzarmena Haurtzaro Gazteria eta Hezkuntza zerbitzuari apairuen hornitzeko.

ERABAKIA

Aristizabal andereak, auzapez ordea, oroitarazi du Jantegi elkarteak bazkari beroak eskaintzen dizkiola Haurtzaro Gazteria Hezkuntza zerbitzuari, Kanbo herriaren eremuan, honako zehaztapenekin:

*120 haur bazkari eta 15 heldu bazkari egunean, 2022ko urriaren 24tik azaroaren 4era.

Garai horretan, bazkariak Jantegiren jangelan hartuko dituzte haurrek.

Bazkari bakoitza 2,89€tan zergaz kanpo, eta 3,05€tan zergak barne saltzen du.

Herri Biltzarrak, Aristizabal anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari Jantegi elkartearekin hitzarmena izenpetzeko, eranskinean agertzen den bezala.

76 – Herriko Etxea eta GEUZ-aren artean eskaera talde baten osatzea jatetxe-txartelen hornikuntzarako.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, oroitarazi du herriak zerbitzu eskaintza kontratua egin behar duela, herriko langileentzako jatetxe-txartelak eskaintzeko. Horretarako, lehenik zerbitzu hori eskaintzen duten enpresen arteko lehia egin behar da deialdi baten bidez.

Gizarte Ekintzako Udal Zentroak ere behar bera duenez eta kontsulta egin behar duenez bere langileentzako, eskala aurrezkiak egiteko xedearekin bi deialdiak elkarrekin egitea komenigarritzat jotzen da esleipendun bera hautatzeko.

Frantziako eskaera publikoaren kodeko L.2113-6 artikulua arabera, zenbait eroslek eskaera taldeak osa ditzakete elkarrekin deialdiak plazaratzeko. Honelako talde baten sortzeak organo erabakitzaileen erabakia hartzea eta sortuko den eskaera taldearen funtzionamendu baldintzak zehazten dituen hitzarmena izenpetzea eskatzen du.

Bide horretan, biko hitzarmena izenpetu behar dute herriak eta GEUZak.

Herri Biltzarrak, Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU, eranskinean den hitzarmena, herria eta GEUZaren artean eskaera talde baten sortzeari buruzkoa,

ERABAKI DU, herria izanen dela taldearen koordinatzaile,

ZEHAZTU DU, taldearen deialdi batzordea koordinatzailearena izanen dela.

HITZ HARTZEAK:

Alaman jaunak galdegin du zenbat jatetxe-txartel banatuko diren langile bakoitzari.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak erantzun dio langile bakoitzak 100 jatetxe-txartel izanen dituela urtean, bakoitzak 6€ko balioa izanik eta herriak kostu horren %60 harturik.

77 – Hilobi berrien salmenta prezioaren finkatzea.

ERABAKIA

Kontuan izanik, bi lekuko hiru hilobi ezarri direla herriko hilerrian, eta horien salmenta prezioa finkatu behar dela.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

Hilobi bakoitzaren salmenta prezioa 2 165 €tan **finkatzea**,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

78 – 2023ko salneurriak.

78-A – Herriko apartamentuen 2023ko prezioak.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, herriko apartamentuen alokairu sariak:

- San Josepe etxea (F3 txikia): 491 € hilabetean, 2023.01.01etik goiti
- San Josepe etxea (F3): 741 € hilabetean, 2023.09.01etik goiti
- Lehen mailako eskola publikoa: 621 € hilabetean, 2023.02.01etik goiti
- Apezetxea: 337 € urtean, 2023.01.01etik goiti
- Behereko plazako eskola: 509 € hilabetean, 2023.03.09tik goiti
- Denentzat zentroa 1: 615 € hilabetean, garajea: 46 € hilabetean, 2023.03.17tik goiti
- Denentzat zentroa 2: 516 € hilabetean, garajea: 46 € hilabetean, 2023.01.01etik goiti
- Poupel karrikako etxe juntatua 1: 773 € hilabetean 2023.09.01etik goiti
- Poupel karrikako etxe juntatua 1: 747 € hilabetean 2023.01.01etik goiti
- Turismo Bulegoa (1.estaia): 597 € hilabetean 2023.01.01etik goiti
- Turismo Bulegoa (2.estaia): 456 € hilabetean 2023.01.01etik goiti
- Laborde etxea (1. estaia): 456 € hilabetean 2023.05.05etik goiti
- Laborde etxea (2. estaia): 456 € hilabetean 2023.09.01etik goiti
- Hilerriko zaindariarena: 210 € hilabetean 2023.01.01etik goiti
- Igerilekuko zaindariarena: 236 € hilabetean 2023.01.01etik goiti

HITZ HARTZEAK:

Hiriart-Urruty andereak galdetu du zergatik hutsik den igerilekuko etxebizitza.

Jean-Paul Eyherachar jaunak erantzun dio lan batzuk egitekoak direla alokairuan diren etxebizitzaren araudi termikoari egokitzeko. Gehitu du, F eta G sailkapen termikoa duten etxebizitzak ezingo direla gehiago zuzenean alokairura eskaini.

Zerbitzu teknikoetako zuzendariak zehaztu du lehenik isolamendu lanak egingen direla, bai hormetan baita teilatuan ere eta ondotik estetika osoa landuko dela. Zehaztu du, gaur egun tenis estaliaren obrentzako obra bilkuren egiteko erabilia dela, eta urtarriletik aitzina teniseko club houserako biltegi bezala erabiliko dela lau hilabetez club housea berroneratuko baita.

Aiçaguerre andereak galdetu du ea berrikuntza energetikoa behar duten etxebizitzak zerrendatu direnez.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak ihardetsi dio lehenagotik onartu zen CEPren baitan etxebizitza guztien azterketa egingen dela.

78-B – Euskal Bixkotxaren Bestako erakusleen prezioak, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean izanen direnak.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, euskal bixkotxaren bestako erakusketariak eremu publikoa okupatzeko sariak, 2023 urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

- Arte ofizialeak oihal pean:

*egun bat = 80 €

*bi egun = 100 €

- Arte ofizialeak beren materialarekin:

* egun bat = 50 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko

*bi egun = 80 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko

- Ekoizleak oihal pean:

*egun bat = 160 €

*bi egun = 200 €

- Ekoizle jaki saltzaileak:

* egun bat = 50 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko

*bi egun = 80 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko

- Sukaldaritza elkarateak: 50 € bi egunentzako

- Elektrizitate gastuak:

*egun bat = 15 €

*bi egun = 20 €

- Euskal bixkotxaren bestarentzako karrusela: 80 €ko saria

- Ahate arrantza eta beste: 50 €ko saria

78-C – Herriko Besten karietara eremu publikoaren okupatzeko prezioak, 2023ko urtarrilaren 12etik goiti indarrean izanen direnak.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatureta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, herriko bestetan eremu publikoa okupatzeko sariak, 2023 urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

Autodromoa	240 €
Pintza garabia	100 €
"Mini-Scooter" karrusela	155 €
Txurro saltzailea	100 €
Tiro gunea	120 €
"Cracy Dance" karrusela	160 €
Kaskada gunea	120 €
Ahate arrantza	100 €
Goxoki saltzailea	120 €
Haurrentzako labirintoa	120 €
Karabina gunea	100 €
Haurrentzako karrusela	160 €
Kasino txokoa	120 €
Ura behar duten karruselak (adibidez igerilekua)	20 €ko gehigarria

78-D – Hilerriko prezioak 2023/2024.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, hilerriko kontzesio, zerbitzualdi eta zergen tarifak, 2023 eta 2024 urteetarako:

Kontzesioak:

- Lur betean, 2 m² (15 urte)..... 230 €
- Lur betean, 2 m² (30 urte)..... 390 €
- Lur betean, 1 m² (15 urte)..... 60 €
- Lur betean, 1 m² (30 urte)..... 110 €
- Hilobiak (30 urte) 390 €
- Hilobitxoak (30 urte) 230 €

Ehorzketa zerbitzualdia..... 25 €

78-E – 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean izanen diren Arnagarako sartzeko prezioak.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, Arnagarako sartzeko sariak, 2023 urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

- Helduak: 9,00 €
- Heldu taldeak (laguntzailea eta gidaria urrikerik) 15 lagunetik goiti: 8,00 €
- Kolegio, lizeo eta unibertsitate ikasleak: 4 €
- Eskola ikasleak eta 7 eta 11 urte arteko haurrak: 2,50 €
- Elbarrituak: 4 €, laguntzailea: 4 €
- Elbarritu taldeak (laguntzailea eta gidaria urrikerik): 3,50 €
- Langabetuak: 4 €
- «Turismo partaideentzako» prezio berezia (VVF, CE, Carte Gîtes plus, route historique, Sites et Musées...) eta irakasleak: 7,50 €
- 7 urtetik beherako haurrak: urrikerik
- Familia eskaintza: hirugarren haurretik goiti urrikerik
- Ikuskizunak: 15 €
- Eskolentzako tailerrak: 2,50 €/ikasle
- Bisita gidatua audiofonoarekin (denentzat): + 1 €
- Ekitaldiak:
 - ✓ Lorategirako sartzeko: urrikerik
 - ✓ Etxerako sartzeko
 - Helduak: 4 €
 - Kolegio, lizeo eta unibertsitate ikasleak: 2,50 €
 - 12 urtetik behera: urrikerik
- Lorategien bisita:
 - ✓ Prezio arrunta: 6,50 €
 - ✓ Prezio berezia (kolegio eta lizeoetako ikasleak, estudianteak eta angabetuak) : 2,50 €
 - ✓ Eskola ikasleak eta 7 eta 11 urte arteko haurrak: urrikerik

Beste doakotasunak: Kanboko biztanleak, Kanboko Herriko Etxeko langileak, « Les Amis d'Arnaga » elkarteak, ICOM (museo kontserbatzaileak) edo ICOMOS (monumentu historikoetako kontserbatzaileak) txarteldunak.

Arnagarako erabiltzaileek egin ditzaketan itzulera eskaerak:

Erreserba guneko Salmenta Baldintza Orokorren arabera (C.G.V) ezin da sarrerarik aldatu edo itzuli.

Alabaina, ez ohiko kasuetan sarreraren dirua itzultzen ahalko da, honako kasuetan:

- Arnagan antolaturiko kultur ekitaldien bertan behera uztea edo atzeratzea;
- Osasun arrazoiengatik;
- Erreserba gunearen funtzionamendu okerra, erreserba bakar batentzako ordainketa anitz eragiten dituelarik.

Arrazoi hauetako batengatik itzulera eskaera egiten denean egiaztagiriak eman beharko dira. Beste edozein arrazoiengatik eskaerak ez dira onartuko, Salmenta Baldintza Orokorren arabera.

78-F – Lorategietarako hitzorduen prezioak, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, lorategiko hitzorduen erakusketarien prezioak, 2023 urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

- Udaberriko ekitaldia: 50 €
- Larrazkeneko ekitaldia: 35 €

78-G – «Liburu Azokaren» prezioak 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, liburu azokarentzako prezioak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izanen direnak:

- 9 € mahai erdia (0,90 m)
- 18 € mahai osoa (1,80 m).

78-H – Gela eta materialen alokatzeko prezioak, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez, **Honela FINKATU DITU**, gela eta material alokairuen prezioak, 2023 urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

Kiroldegia

Kanboko elkartearen urrikako ekitaldiak	150 €
Kanboko elkartearen ordainduriko ekitaldiak	300 €
Kanbotik kanpoko elkartearen urrikako ekitaldiak	700 €
Kanbotik kanpoko elkartearen ordainduriko ekitaldiak	1 500 €
Pribatua	2 000 €

Ezker pareta

Kanboko elkartearen urrikako ekitaldiak	75 €
Kanboko elkartearen ordainduriko ekitaldiak	150 €
Kanbotik kanpoko elkartearen urrikako ekitaldiak	500 €
Kanbotik kanpoko elkartearen ordainduriko ekitaldiak	1 200 €
Pribatua	1 200 €

Ezker paretaren eranskina eta dojoa

Kanboko elkartearen urrikako ekitaldiak	30 €
Kanboko elkartearen ordainduriko ekitaldiak	75 €
Kanbotik kanpoko elkartearen urrikako ekitaldiak	90 €
Kanbotik kanpoko elkartearen ordainduriko ekitaldiak	165 €
Pribatua	220 €

Zabalki

Kanboko elkarteak	90 €
Kanboko biztanleak	280 €
Kanbotik kanpokoak	600 €
Gordailua	500 €

Errugbiko egoitza

Kanboko elkarteak	90 €
Kanboko biztanleak	170 €
Kanbotik kanpokoak	250 €
Gordailua	500 €

Animazio aretoa

Irabazi asmorik gabeko animazioa	Urririk (500 €ko gordailua)
Irabazi asmoko animazioa	
• Kanboko elkarteak	60 € (500 €ko gordailua)
• Kanbotik kanpoko elkarteak	200 € (500 €ko gordailua)

Bilkura gela: Elorrimendi – Larrazkena – Zerbitzu gunea

Kanboko elkarteak	urririk
Kanbotik kanpoko elkarteak	29 €/ordu
Jabe elkartea eta pribatuak	29 €/ordu
Gordailua	500 €

Kirol gela barneko materialaren alokatzea

Mahai eta aulki - Kanboko elkarteak	urririk
Mahai eta aulki - Kanbotik kanpoko elkarteak	130 € mahaiak – 130 € aulkiak
Berogailua - Kanboko elkarteak	urririk + erregaia
Berogailua - Kanbotik kanpoko elkarteak	130 € berogailua + erregaia
Oholtza - Kanboko elkarteak	160 €
Gordailua	200 €

Kirol gelatik kanpoko materialaren alokatzea

Mahai eta aulki - Kanboko elkarteak	urririk
Berogailua - Kanboko elkarteak	urririk + erregaia
Oholtza - Kanboko elkarteak	160 €
Gordailua	500 €

Herriko gelen alokatzea lizentziadunik ez duten eta federazio bati atxikiak ez diren kirol eta kultur elkartei

Kanboko elkarteak	7 €/ordu
Kanbotik kanpoko elkarteak	15 €/ordu

Beharrezkoa honako dokumentuen ematea:

- Elkartearen estatutuak (suprefeturako egiaztageria)
- Elkartearen segurantzaz
- Irakaslearen diploma
- Prezioen taula
- Diru eta jarduera txostena.

78-I – Autokarabana guneko prezioak, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, autokarabana guneko sariak, 2023 urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

Aparkatzea:

24 orduko tarteka (1)..... 14.00 €
(1) Honako zerbitzuak barne: ura – hustea – elektrizitatea – wifi-a
Egonaldi zerga barne

Aparkatzerik gabeko zerbitzuak:

Ura 4.00 €
Hustea urririk

Autokarabana erabiltzaileek egin ditzaketen itzulera eskaerak:

Ez ohiko kasuetan, aparkatzearen dirua itzultzen ahalko da uste baino lehenago joanez gero, honako kasuetan:

- Osasun arrazoiengatik;
- Familia arrazoiengatik;
- Aginteek harturiko neurriak (itxialdia...)
- Terma egiturak terma arta deuseztatzen badu.

Arrazoi hauetako batengatik itzulera eskaera egiten denean egiaztagiriak eman beharko dira. Ez da beste arrazoirik onartuko.

79 – Hartzekoen baztertzea.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, auzapez ordea, honakoa azaldu du:

Ikusirik, Anne-Marie Perez andereak, Kanboko Diruzaina, aurkeztu duen hartzekoen 11,17 €ko zenbatekoa, zeina 2021 eta 2022ko aurrekontu nagusietako sartzeen agirietan agertzen diren.

Kontuan izanik, hartzeko horien eskuratzeko izapide guztiak legezko epeetan egin dituela Diruzain andereak,

Kontuan izanik, dagoeneko hartzeko horiek ezingo direla eskuratu,

Kontuan izanik, horretarako kredituak 2022ko hasierako aurrekontuko 65. ataleko, hartzekoei buruzko 6541 artikuluan sartu direla,

Hartzeko horien eskuratzeko egin zitzakeen izapide guztiak egin-eta, Herri Biltzarrari eskatu dio gorago aipatu hartzekoen zenbatekoa baztertzea.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ERABAKI DU, eranskinean zerrendatuak diren hartzekoen baztertzea,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko.

80 – Euskal Elkargoa: Karga Transferituen Ebaluaketarako Tokiko Komisioaren (CLECT) txostenaren onarpena.

ERABAKIA

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra

IKUSIRIK, Frantziako Zerga Kodeko 609 nonies C artikulua;

IKUSIRIK, 2020ko uztailaren 31ko Elkargoko Batzorde Nagusiaren erabakia, zeinean Karga Transferituen Ebaluaketarako Tokiko Komisioaren (CLECT) osaketa finkatzen zen;

IKUSIRIK, Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariaren 2021eko maiatzaren 4ko ordenantza, non CLECT komisioaren kideen zerrenda finkatzen zuen;

IKUSIRIK, 2022ko urriaren 11ean, CLECT komisioak karga transferituen ebaluazioaz egin txotena; Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU, CLECT komisioaren 2022ko urriaren 11ko txostena, eranskinean agertzen den bezala;

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari erabaki honen egikaritzeko izapide guzien egiteko eta gai honi buruzko agiri oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak adierazi du CLECTaren txostenak herri batzuentzako konpentsazio sarien bi emendatze hartu dituela.

Lehena, GEMAPI kargei dagokiena. Auzapezak oroitarazi du 2021 baino lehenagoko urteetan jokagai diren herrietako kargak sindikatuak zituztela hartzen, gure kasuan Errobi Ibarreko Sindikatua. Sindikatu horiek GEMAPI eskumenik gehiago betetzen ez zutenetik, Euskal Elkargoak ditu ordeztu eta karga transferentzia orokorraren zenbatekoa 274 000 eurotan baloratu du. Ondorioz, Euskal Elkargoak herri bakoitzari ematen zitzaion konpentsazio saria tipitu zuen. 2021ean, GEMAPI zerga 0,457ko tasa batean hartzen zuen. Honela, gaur egun GEMAPI eskumena ez da gehiago konpentsazio sarien bidez finantzatzen, baizik eta zergaren bidez. 2021etik gaurdainoko egoera erregularizatu behar dugu, bi urteko beranta ordainduz eta 2022ko emendatzea, hots 16 354 € Kanbori dagokionez. 2023tik goiti, konpentsazio sariak urtero 8 177 €z emendatuko zaizkigu.

Bigarren erabakia, Donapaleuko Gaztetxeari ematen zitzaion dirulaguntzari buruzkoa zen. Euskal Elkargoak zuzenean ematen zion dirulaguntza Gaztetxeari. 21 politika publikoetan sartzen ez zenez, Euskal Elkargoak erabaki du Donapaleuko konpentsazio saria emendatzea, herriak zuzenean eman diezaion dirulaguntza Gaztetxeari. Horren bidez, dirulaguntza hori bermatua izanen da, zein izan ere Donapaleuko herriak har ditzakeen erabakiak.

Errobi lurralde eremuari dagokionez, honek ez ditu gehiago harmailak alokatzen. Ondorioz, eskura ezartze horretaz baliatzen ziren herrien konpentsazio sariak ere emendatuko dira. Kanbok bere harmaila duenez, ez dago galerarik, beraz ez dago konpentsazio sariaren aldatzerik.

Etcheleku jaunak hitza hartu du errateko CLECTaren txosteneko gai gatazkatsuena erabakirik gabe aipatu dela bilkura bukaeran. Hori zen hain zuzen, Hiriko Euri Urren Kudeaketari buruzko finantza ondorioei buruzkoa (GEPU). Zehaztu du kostaldeko hiriek ez dutela konpentsazio sarien aldatzarik, zeren transferentziak konpentsazio saririk gabe egin baitziren.

Herriak bere interesak defenda ditzala nahiko luke, zeren uren banaketa egin duten herri eredugarriek kalte egiten baitie ikuspegi bidegabe horrek.

Proposatu du, momentua izanen denean mozio edo proposamen oso argia aurkeztea herriaren interesen defendatzeko.

Auzapezak zehaztu du, CLECTeko lehendakari ere izanik, herriaren jarrera eta interesak defendatuko dituela.

81– Garraio publikoen kudeaketa-egitura publiko baten sortzea.

ERABAKIA

Auzapezak oroitarazi du Ipar Euskal Herriko mugikortasunen Sindikatuak duela bere lurraldean eskola garraioen antolatze eskumena, mugikortasunen lehen aginte antolatzailea denez geroztik.

Herriak autobus bat badu eta mugikortasunen sindikatuari dagokion eskola garraio zerbitzuaren zati bat betetzen du. Honela, herria mugikortasunen bigarren mailako aginte antolatzailea da (AO2).

Eginkizun horren baldintzak zehazteko hitzarmen bat izenpetu zuten herriak eta mugikortasunen sindikatuak. Herriak betetzen duen eskola garraioaren eginkizuna xedatzeaz gain, hitzarmenak sindikatuak herriari emango zion dirulaguntza kalkulatzeko modua ere finkatzen zuten, herriaren eskuhartzea konpentsatzeko.

Herriak eskola garraioaren zati bat betetzen duenez, Frantziako Eskualdeko Ingurumen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritzari (AIAEZ/DREAL) eskatu behar zaio herria garraiolari publikoen erregistroan sar dezala.

Horretarako, L.1221-10 artikulua araberak AIAEZek garraioen egitura kudeatzaile baten sortzea eskatzen dio herriari. Artikulu horrek dio, garraio egitura kudeatzaileak aginte antolatzailearen erabakiz sortzen direla, hots herriaren erabakiz.

Egitura kudeatzaileak zuzendari bat izan beharko du, hautetsia ezin duena izan, eta zuzendaria egitura kudeatzailea sortu eta izendatuko da.

Herriak bi ibilgailu baino gutxiago dituenek, ez du garraiolariari eskatzen zaizkien finantza eta lanbide baldintzen betebeharririk izanen.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU, garraio publikoen egitura kudeatzailea sortzea, zeinak ez baitu finantza eta lanbide baldintzarik bete beharko,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari erabaki honen egikaritzeko izapide guzien egiteko, bereziki garraiolarien erregistroan izena emateko izapideen egiteko.

HITZ HARTZEAK:

Sébastien Carré jaunak zehaztu du Zuzendariak garraio gaitasun agiria izan beharko duela nahitaez. Gehitu du, garraioen kudeatzeko, izan merkantziak nola bidaiariak, pertsona horrek diploma berezia ukan beharko duela. Horregatik kasu egin beharko da kontratatuko den pertsonaren profilari, eta AIAEZek gaitasun hori duten pertsonen zerrenda eman dezakeela.

Auzapezak zehaztu du ez dela egitura kudeatzailea kontularitza ikuspegitik, baizik eta administrazio ikuspegitik eta horretarako garraio publikoen erregistroan erregistratzearekin aski dela. Gehitu du, halere hautatuko den pertsonak behar diren gaitasunak dituela zainduko duela.

82 – Langileria: enplegu sortzea.

ERABAKIA

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio Frantziako 2002-276 legeak, hurbileko demokraziari buruzkoak, herrien esku uzten duela biztanleriaren errolda ekintzen egiteko ardura.

2004ko urtarriletik, 10 000 biztanletik beherako herriek 5 urtero errolda inkesta exhaustiboa egin behar dute.

Kanbo, 2023ko urtarrilaren 19tik otsailaren 18ra erroldatua izanen den herrietako bat da.

Horretarako, kontuan izanik 2007, 2012 eta 2017ko kanpainetako prestaketa eta bilketa ekintzetan parte hartu zuela, Patrick PEÑA jauna izendatua izan da iragan uztailaren 11ko erabakiz herriko koordinatzaile postuan.

Administrazio zerbitzu orokorrek Kanbo 19 eremutan zatitu zuten (bilketa eremuak) hots gutxi gora behera 4 100 etxebizitza (3 884 etxebizitza 2017an).

Eginkizun horren betetzeko, Auzapezak proposatu du denbora ez osoko eta behin behineko hamazazpi lanpostu sortzea, Frantziako funtzio publikoaren 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 legearen 3. artikuluko 2 lerrokadaren arabera. Aitzitik, batzuek ezezkoa eman dezaketelakoan edo covid-19arengatik erialdiak izan daitezkeelakoan, beste bi lanpostu sortzea gomendatzen da. Bi langile gehigarriek INSEEk antolatu errolda agenteen formakuntza segituko lukete, eta agente titularrak segituko lituzkete beren itzuliaren ezagutzeko. Batek huts egingo balu, bi horietako batek ordezkatzuko luke.

Enplegu horien sariak honakoak lirateke: etxebizitza fitxa bakoitzeko 6 € gordin, itzuliaren ezagutzeko 150 € gordineko saria, bilketa bukaerako 300 € gordineko prima, garraio gastuentzako 80 € gordineko ordain saria eta 2023ko urtarrilaren lehen erdian eginen dituzten formakuntza egun erdi bakoitzeko 30 € gordineko ordain saria.

Halaber, koordinatzaile laguntzaile enplegu bat ere sortu beharko litzateke, koordinatzaile nagusiaren laguntzeko, 2023ko urtarrilaren 2tik otsailaren 28ra.

Kontratupeko denbora osoko enplegu horrek lurralde funtzio publikoko C1 eskalako 8. maila izango luke, hots 384ko indize gordina.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ERABAKI DU, behin behineko eta denbora ez osoko 19 errolda agente enplegu sortzea 2023ko urtarrilaren 2tik otsailaren 21era,

ZEHAZTU DU, langile horien sariak honakoak liratekeela: etxebizitza fitxa bakoitzeko 6 € gordin, itzuliaren ezagutzeko 150 € gordineko saria, bilketa bukaerako 300 € gordineko prima, garraio gastuentzako 80 € gordineko ordain saria eta 2023ko urtarrilaren lehen erdian eginen dituzten formakuntza egun erdi bakoitzeko 30 € gordineko ordain saria.

ERABAKI DU, kontratupeko eta denbora osoko 2 herri koordinatzaile enplegu sortzea 2023ko urtarrilaren 2tik otsailaren 28ra,

ZEHAZTU DU, kontratupeko denbora osoko langile horiek lurralde funtzio publikoko C1 eskalako 8. maila izango luketela, hots 384ko indize gordina.

ZEHAZTU DU, horretarako kredituak badirela 2023ko aurrekontuan.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko, besteak beste lan kontratuak

83 – Langileria: enplegu sortzea.

83-A – Arduradun enplegu baten sortzea.

ERABAKIA

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora osoko arduradun enplegu iraunkorra sortzea, erosketa, zuzenbide eta dirulaguntza Arduradun eginkizunen betetzeko.

Asteko batezbesteko lan denbora 35 orenkoa izanen da.

Enplegua A kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: erosketa, zuzenbide eta dirulaguntza arduraduna

Dagokion gradua: Arduraduna

Kategoria hierarkikoa: A

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-14 artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- lurralde arduradun mailako funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen baitituzte,

*baimen berezi gisa, kontratupeko langile bat kontratatuz, Frantziako funtzio publikoaren kodeko L.332-14 artikulua arabera, zeinak baimentzen baitu kontratupeko langileak kontratatzea funtzionario bat kontratatu bitartean hutsik den lanpostu baten betetzeko.

Orduan, lan kontratua mugatua izanen da eta gehienez urte batekoa. Iraupena luzatzen ahalko da, gehienez orotara 2 urtera, funtzionarioa kontratatzeko prozedurak emaitzarik eman ez badu.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 444 eta 821 arteko indize gordina izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurralde arduradun mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti denbora osoko lurralde arduradun enplegu iraunkor baten sortzea.

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,

- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 444 eta 821 arteko indize gordina izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DITU, Auzapezaren proposamen guziak.

- **ZEHAZTU DU**, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

HITZ HARTZEAK:

Gonzalez andereak jakin nahi izan du ea jadanik herrian lan egiten duen langilea ote den.

Auzapezak baietz.

83-B – Animazio laguntzaile enplegu baten sortzea.

ERABAKIA

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora osoko animazio laguntzaile 2. gradutik gorako enplegu iraunkorra sortzea, arlo soziokulturalean proiektu elebidunen koordinazio eginkizunen betetzeko.

Asteko batezbesteko lan denbora 35 orenekoa izanen da.

Enplegua B edo C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: Animatezaile euskalduna

- 2. klaseko animazio laguntzaile nagusia
- 1. klaseko animazio laguntzaile nagusia
- animatezailea

- 2. klaseko animatezaile nagusia

- 1. klaseko animatezaile nagusia

Kategoria hierarkikoa: C edo B

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-14 artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- lurralde animatezaile laguntzaileen mailako funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen baitituzte,
- baimen berezi gisa, kontratupeko langile bat kontratatuz, Frantziako funtzio publikoaren kodeko L.332-14 artikulua arabera, zeinak baimentzen baitu kontratupeko langileak kontratatzea

funtzionario bat kontratatu bitartean hutsik den lanpostu baten betetzeko.

Orduan, lan kontratua mugatua izanen da eta gehienez urte batekoa. Iraupena luzatzen ahalko da, gehienez orotara 2 urtera, funtzionarioa kontratatzeko prozedurak emaitzarik eman ez badu.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 368 eta 486 arteko indize gordina izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurralde animazio laguntzaile mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU, 2022ko abenduaren 1etik goiti denbora osoko lurralde animatzaile laguntzaile euskaldun enplegu iraunkor baten sortzea.

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 368 eta 486 arteko indize gordina izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DITU, Auzapezaren proposamen guziak.

- **ZEHAZTU DU**, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

HITZ HARTZEAK:

Beyrie andereak pertsona horren lanpostu fitxa ikusi nahiko luke, euskara eta animazio atalei dagokienez.

Auzapezak baietz erantzun dio, eta gehitu du pertsona hori bere eginkizun guzietan zeharkakotasunean arituko dela, eta euskaraz aritzeko gaitasuna izanen duela.

Gonzalez andereak galdetu du ea hautagai asko baden lanpostu horrentzat. Auzapezak erantzun dio hautagaitza gutxi izan dela eta kontratatze prozedura konplikatu izan dela. Zehaztu du hirugarren deialdian baizik ez dela aterabiderik atzeman.

Beyrie andereak jakin nahi izan du nola egiaztatu den bere euskarazko gaitasuna.

Auzapezak ihardetsi dio euskalduna dela, Euskal Herrikoa dela eta Irisarriko familia euskaldunekoa dela.

Beyrie andereak zehaztu du euskararen kasuan alfabetatu gabeko jende anitz badela, eta hori ez dela gaitzesgarria, baina etxean ikasirik ere batzuek ez dakitela behar bezala idazten.

Auzapezak proposatu dio langile horrekin solasta dadila euskara gaitasuna ikusteko, berak ez baitu horretarako jakintzarik baina segur da kalitatezko kontratatzea dela.

84– Langileria: aprendizgo kontratuak.

ERABAKIA

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra

IKUSIRIK, Frantziako Laneko Kodea;

IKUSIRIK, Frantziako 2009ko azaroaren 24ko 2009-1437 legea, lanbide orientazioari eta bizi osoko lanbide formakuntzari buruzkoa,

IKUSIRIK, Frantziako 1992ko uztailearen 17ko 92-675 legea, aprendizgoari eta lanbide formakuntzari buruzkoa eta laneko kodea aldatzen duena;

IKUSIRIK, Frantziako 1992ko azaroaren 30eko 92-1258 Dekretua, aprendizgoa eta hori esparru publikoan esperimentatzeari buruzkoa,

IKUSIRIK, Frantziako 1993ko otsailaren 2ko 93-162 Dekretua, esparru publiko ez industrial eta ez merkataritzakoan aprendizaren lansariei buruzkoa,

Frantziako 2017ko otsailaren 16ko 2017-199 dekretua, aprendizgo kontratua esparru publiko ez industrial eta merkataritzakoan gauzatzeari buruzkoa;

IKUSIRIK, 2022ko irailaren 19ko Tokiko Batzorde Teknikoaren aldeko iritzia,

KONTUAN IZANIK aprendizgoarekin, 16 eta 25 urte arteko pertsonak (langile elbarrituek ez dute adin muga gorenik formakuntzan sartzeko) espezialitate batean ezagutza teorikoak ikasten dituztela eta enpresa edo administrazio batean praktikan ezartzen ahal dituztela; alternantzia formakuntza horiek diploma edo titulu bat ematen dutela;

KONTUAN IZANIK mekanismo hori interesgarria izan daitekeela bai gazteentzat, baita gazteak hartzen dituen zerbitzuarentzat, prestatzen dituzten diplomengatik eta horrek ematen dizkien gaitasunengatik;

KONTUAN IZANIK, Tokiko Batzorde Teknikoaren aldeko iritzia ondotik Herri Biltzarrari dagokiola erabakitzea aprendizgo kontratua egin ahal izatea;

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ERABAKI DU, aprendizgo kontratuak egitea,

ERABAKI DU, 2022-2023 urterako, 2 aprendizgo kontratu eginen dituela, honako taulan agertzen denaren arabera:

ZEHAZTU DU, behar diren kredituak izanen direla 2022/2023 aurrekontuan, gure aurrekontu dokumentuetako 012 atalean,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari dispositibo honi buruzko agiri oro izenpetzeko, besteak beste aprendizgo kontratuak eta aprendizaren formakuntza zentroekiko hitzarmenak.

Zerbitzua	Postu kopurua	Prestatzen ari den diploma	Formakuntzaren iraupena
Arnagako berdegunea	1	CAP	Urte 1
Herriko baratzezaintza	1	Zehaztu gabea	Urte 1

85– Langileria: Lanbideratze Kontratu Bakarra – Enplegu eta Gaitasun Ibilbidea (CUI-PEC).

ERABAKIA

Auzapezak Herri Biltzarkideei azaldu die Lanbideratze Kontratu Bakarra - Enplegu Gaitasun Ibilbidea (CUI-PEC) izeneko kontratuean langile baten kontratatzeko xedea, 2022ko irailaren 5etik goiti, mantenu langile zereginen betetzeko.

CUI-PEC kontratu lagundua da. Enplegataile batzuei soilik erreserbatua da, bereziki lurralde erakundeak eta euren partzuergoak. Gizarte eta lanbide zailtasunetan diren langabetuei zuzendua da.

Lan denbora astean 23 orenkoa da.

Lansaria orduko SMICaren (soldata minimoa) arabera kalkulatuko litzateke, oren kopuruaz biderkaturik.

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio baimena eman diezaiola Pole Emploirekin hitzarmen baten eta 9 hilabeteko lan kontratu mugatua izenpetzeko, jakinez kontratua luzatua izan daitekeela gehienez beste sei hilabetez, Pole Emploi eta enplegatailearen arteko hitzarmena luzatzearen baldintzapean.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari Pole Emploirekiko hitzarmena eta langilearekin CUI-PEC lan kontratuaren izenpetzeko.

ZEHAZTU DU - kontratua hastapen batean 9 hilabetekoa izanen dela, beste 6 hilabeterako luzatua izateko aukerarekin, baina eta Pole Emploi eta Herriaren arteko hitzarmena luzatzearen baldintzapean

- lan denbora astean 23 orenkoa izanen dela,

ADIERAZI DU, lansaria SMICaren oinarri apalenean oinarrituko dela eta oren kopuruaz biderkatuko.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari Pole Emploirekin kontratatze horrentzako izapide guzien egiteko,

- **ZEHAZTU DU**, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

– Bestelako gaiak:

Auzapezak lehen gaiari ihardetsi dio. Oroitarazi du, iragan biltzarrean, Europako udalerrri eta eskualdeetako bertako bizian emazte eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Europako Gutuna aurkeztea proposatu zela.

Berori engaiatu zen aurkezpen horren egiteko tartea erreserbatuko zuela ondorengo biltzarrean.

Lilian Hirigoyen andereak oroitarazi du gizon/emazte desberdintasunen gaiari buruz, elkargoko hautetsi guziak engaiatu direla, eta aho batez tokiko bizian emazte eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko Europako Gutuna onartu dutela.

Azpmarratu du gutun hori ez dela Euskal Herritik abiatu. Frantziako elkarte baten lana da, hain zuzen Europako udalerrri eta eskualdeen Kontseiluaren elkarte, 1951ean Bigarren Mundu Gerlaren ondotik sortua, Europako ahal bezainbat nazio elkarrengandik hurbiltzeko xedearekin harreman berriak sortzaten. Izenpetu dutenen artean Jacques Chaban-Delmas eta Gaston Defferre frantsesak daude. Horren ondorioz hasi ziren Europako hainbat hiri eta herriren arteko senidetzeak, eta hortik ere abiatu zen emazte eta gizonen berdintasunaren aldeko Europako gutun baten sustapen lana.

Euskal Elkargoan bada emazte eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburua duen elkargoz kanpoko batzorde bat, zeinak tresnak eta kanpainak sortzeko xedea baitu.

Azpmarratu du batzorde horrek gutunaren laburpena den dokumentua sortu duela, eta horrekin batera hainbat proposamen egiten dituela antzeko ekintza herrien esparruan gauzatzeko.

Galdetu du ea Kanbo gutun horren izenpetzera engaiatzen den, eta ekintza zehatzak burutzeko beste bizpahiru puntutan ere engaiatzen ote den.

Auzapezak baietz erantzun dio eta dokumentu horren aztertzeko, ekintza esparrua eta egin litezkeen ekintzak finkatzeko ad hoc batzorde bat osatzea proposatu du. Ondotik, Herri Biltzarrak bozkatu ditu ekintza horiek.

Lilian Hirigoyen andereak proposamena onartu du.

Auzapeza bigarren gaiari lotu zaio, hots herriko bestetan Behereko Plazako besta komitearen ostatuan agertu den afitxa sexistaren gaiari.

Gertakaria deitoratu du. Zehaztu du, horren berri ukan bezain laster Jendarmeria abisatu duela, eta Yolande Huguenard-ekin, animazio batzordeko arduraduna, bi besta komiteetako arduradunekin bildu direla. Bi hautetsiek Behereko plazako besta komiteko kide batzuen jarrera sexistak salatu dituzte. Bi pertsona horiek beren burua salatu eta barkamenak eskatu dituzte. Auzapezak eta auzapez ordeak herriko bi besta komiteetako kideei galdegin diete denen duintasuna, segurtasuna eta eskubideak bermatzera engaitza daitezela.

Hirigoyen andereak aitortu du bi komiteei igorri zitzaaien protokoloan akatsa izan dela, nahiz eta horren idazketa lanean parte hartu zuten.

Auzapezak zehaztu du ez dela bere asmoa Behereko Plaza eta bertako komitea publikoki salatzea, kontuan izanik gainera bestentzako egitarau ederra eskaini dutela, aitzineko urteekiko hobekuntza nabarmenarekin.

Lilian Hirigoyen andereak gehitu du bere taldeak ez zuela salaketa publikorik egiteko xederik, baina bai komitea egoera oker horretatik ateratzen lagundu nahi zutela.

Auzapezak zehaztu du ez duela nahi izan sare sozialetan gaia aipatu, besten irudi onari kalte egingen zuelakoan.

Beaulieu eta inguruetako gaia aipatu du ondotik.

Beaulieuri dagokionez, oroitarazi du ToLFEPak sutearen ondotik egituraren diagnostikoa abiatu zuela. Lekuaren segurtasunaz kezkatua agertu da, jende batzuk berriz bertara sartzen hasi baitira eta leku horren zaintzaileen lana ez baita batere erraza.

Ondotik, Petit Franclet aipatu du, zeinarentzat ToLFEPak suntsitzeko baimena eskatu baitu, eta lanen egiteko deialdia plazaratua izan dela zehaztu du.

La Lorraine etxeari dagokionez, osasun etxeak eta farmaziak bateratu nahi zituen Medicambo-ren proiektua bertan behera gelditu dela.

Azkenik, Bru etxeari dagokionez, herriko etxeak deialdia plazaratu du apartamentu batean urgentziazko lanen egiteko.

Gero, Auzapezak Haiderria JDB aipatu du. Jakitera eman du, eremuko eragileek, hots lurren jabeek eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluak bilkura egin zutela 2022ko uztailean eta agorrilean. Oraingoz, herria txosten teknikoaren beha dago, Paskalekuko biribilgunearen antolatzeari buruz. Txostena 2022ko azaroaren 10ean emanen dutela jakinarazi du herriko etxeko zerbitzu eta departamenduko kontseiluarekin.

Aïçaguerre andereak galdetu du ea Icade Immobilier-ek eraikitze baimena eskatu duen.

Auzapezak ezetz erantzun dio. Erran du uko egiten diola solasak abiatzeari jabeak bost adarreko biribilguneari buruzko onarpenik ematen ez dueno.

Auzapezak Tillac eta Toki Eder lur saileko proiektua aipatu du. Gogoeta bat abiatua da, erdiguneko uhartetxoari buruzko egingarritasun ikerketa batekin, Txikito karrika, frontoia eta Tillac-en lur sailak herri erdiraino hartzen dituen.

Gehitu du, pilotaren egoitzari dagokionez, lehengo Maurice Hargain biltegiara joateko proposamena errefusatu duela Kanboarrak elkarteak. Elkarteak zertzelada bat proposatu du, zeina lehenago aipatu proiektuaren baitan aztertua izanen baita.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du SOLIHAK 25 etxebizitza hutsei buruz eman duen azalpenak gauzak hobeki ulertzen lagundu duela.

Auzapezak oroitarazi du ToLFEPek egituraz hutsa den etxebizitzaz (5 urtez hutsik) egiten duen definizioaren arabera 22 direla etxebizitza hutsak eta ez 25. Soliha-k menturaz horiek baino etxebizitza huts gehiago zenbatuko ditu, ezen bere behaketa garaia ez baita 5 urtekoa baina 2 urtekoa. Soliha-k zaharberritze lanak eginen dituzten jabeak lagunduko ditu abantaila fiskalak ukaten.

Hiriart-Urruty andereak Beaulieu proiektuaren garrantzia azpimarratu nahi izan du, aukera anitz eskaintzen baitu laborantza lurrik kontsumitu gabe. Deitoratu du hortaz arraposturik ez ukatea. Ber gauza Toki Eder pareko terrenoari dagokionez. Pilotaren lokala aipatzen da, baina horrek ez du azalera osoa behar.

Hiriart-Urruty andereak etxebizitzaren gaia urgentea dela oroitarazi du. Zinema konplexuari buruzko xehetasunak nahi lituzke.

Auzapezak jakitera eman du Garat familiak hiru zinema gela ezarri nahi dituela Kanbon. Baina, lekuari buruzko zalantza bada.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak gehitu du Toki Ederren pareko terrenoak gaur egungo exigentziak betetzen dituela "hiri erdian eraikitzea, hiri erdigunetik hurbil diren etxebizitzak eraikitzea", eta ondorioz zinema gelen ezartzeko zentzuaz zalantza egiten du, jakinez jadanik badela zinema bat.

Auzapezak ihardetsi dio proiektu horrek zentzua izango lukeela soilik proiektu orokor eta orekatu baten baitan.

Lilian Hirigoyen andereak Kurutxeta bideko idazki homofoboa izan du aipagai, eta auzapezari eskatu dio lehenbailehen horren ezabatzeko neurriak har ditzala.

Auzapezak zehaztu du idazkia eraikin pribatu batean egin dela, eta jabearen baimenik gabe ezin dutela deus egin. Auzapezak prefekturari galdeginen dio zer egin daitekeen.

Azken gaia aztertzeko Auzapezak Beyrie andereari eman dio hitza.

Beyrie andereak urriaren 21etik 23ra Marieniako ordokian izan den mobilizazio asteburuari buruzko informazioa eman nahi izan du. Adierazi du Marienia Ez Hunki kolektiboak, CADE-n, Lurzaindiaren, Ostia kolektiboaren, eta ELB eta FDSEA laborari sindikatuen sostengua ukan duela.

Bigarren mobilizazioa lehena baino handiagoa izan da Oussimendiari eta Arnaga inguruko Urcudoiaiko lurri buruzko kezkekin.

Ikur bilakatu den Marieniako okupazioak Kanboko biztanleria informatzeko helburua zuen.

Gehitu du, gaur egun testuingurua anitz aldatu dela eta mobilizazioaren aldekoa dela. Elikadura zailtasunak, energia prezioen emendatzeak, uholdeak eta idorteak 2019 urtearekiko berriak dira, hots THP bozkatu zen urtearekiko. Egoera okertzen ari baita, udal taldeak txostena berriz ireki beharko lukeela erran du eta lurren zaintzeko aterabidea atzeman.

Auzapezak zehaztu du ez duela adierazpen horri erantzuteko asmorik, ezen bestelako gai horrek manifestazioari buruzko informazioa eman behar baitzuen, eztabaidarik gabe, jakinez manifestazioa ez duela herriko etxeak antolatu ez eta hartara joatea deitu.

Informazioari dagokionez, oraintxe egin izan da eta gainera prentsan luze eta zabal agertu dira txosten horri buruzko iritzi desberdinak. Oroitzera tematu da, SRU frantses legeak eta THPk etxebizitza lagunduak eraikitzen behartzen dutela erdiguneetatik hurbil, itsasbazterretik barnealderako lehen lerroan diren Kanbo bezalako herrien kasuan. Bukatzeko, zehaztu du 150 etxebizitza lagunduentzako eskaera dituela bulego gainean. Oroitarazi du oreka egokia atzeman behar dela jendeek "Ipar Euskal Herrian lan egin eta bizi daitezen".

Ohartarazi du lehen Marienia zela arazoa, eta orain Oussimendia eta bihar Urcudoia...

Auzapezak zehaztu du lehen bi gaiak auzibidean direla eta hirugarrena elkarrizketa fasean dela, eta auzapeza ez dela lur horien jabe. Gai horren instrumentalizazioa deitoratu du, eta SAFER hiru aldiz gomiatu duela oroitarazi du, nahi zuena azaltzeko xedez, hots lur funtsen kudeaketa lehentasunez Kanboko laborarientzako izan zitezten. Eta harridura adierazi du jakin duenean prentsan eta berak jakin gabe antolatu zen bilkura publiko batean auzapezari leporatu baitzaio Urcudoian bereziki laborarien bizkar espekulatu nahi izana.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 22:23an hetsi du.

Jean-Paul EYHERACHAR

Saioko idazkaria



Christian DEVEZE

Kanboko Auzapeza

